KIROLAK: ONCE TXIRRINDULARI TALDEAK ETA EROSKIK BAT EGIN DUTE /10


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko maiatzaren 18a • II. urtea • 22. zenbakia • DOAN BANATZEKOA





**Goienka2a**
Jabi Etxagibel: multizinemen kudeatzailea

**HERRIZ HERRI**
Urtetan Oñatiko txistulari bandan ibilitako Gotzon Osinaga omenduko dute /4

**EUGENIO OTSOA**
*"Poloniara joatea sekulako esperientzia izan da: beste hizkuntza bat ikastea..."* /9


# Alzheimerraren gaineko jardunaldiak

**◆ ARRASATEKO MONTERRON JAUREGIAN**
**Alzheimerraren gaineko hitzaldiak egiten dihardute. Ekainaren bukaera arte izango dira jardunaldiok**

**◆ EDURNE ETXABE:**
**"Oso espezializazio gutxi zegoen hasieran eta instituzioekin borroka handia egin behar izan dugu"**

**◆ ELENA BEREZIBAR:**
**"Lehenik eta behin informazioa bideratzen dugu, gaixotasuna nola tratatu batik bat"**

Alzheimerra egungo gizartean oso hedatuta dagoen gaixotasun degeneratiboa da. Ingurune hauetan bizitza maila altuagoa den neurian, oro har, gizakiak urte gehiago bizi izaten direnez, gehienbat hirugarren adineko biztanleriari kalte egiten dio gaitz latz horrek. Debagoienean Alzheimerra pairatzen duten gaixoen kopuru zehatza ez daukagu, baina adituen esanetan jende asko da berau dutenak. Gaixotasun hori dutenen Gipuzkoako senitartekoak AFAGI elkartzean batzen dira.

Gipuzkoako Alzheimerdunen Senitartekoen Elkartea (AFAGI) sortu zuten, eta berehala Debagoienean ere lanean hasi ziren. Elkarteko presidentea Edurne Etxabe arrasatearra da. Bestalde, AFAGI elkarteak gaixotasun horren gaineko jardunaldiakantolatu ditu egunotan Arrasaten. /2-3

ARETXABALETA

## Euskararen eguna eta Otala Zelaiko erromeria zapatu eta domekan

Loramendi euskara elkarteak eta jai batzordeak Udaberriko Jaia antolatu dute asteburturako. Egubakoitzean, Izturi musika taldeak emango die hasiera jaiei. Gero, zapatuan, euskararen eguna, eta domekan, Otala Zelaiko erromeria egingo dituzte.

Domekan berriz, Otala Zelaiko erromeria ospatuko da. Hemen ere, ez da herri bazkaria faltako. Aurten gainera, Kulki taldearen eskutik herri jokoetan parte hartzeko aukera izango dute koadrilek. /4

ARRASATE

## Aldaiko 650 gorpuki aterako ditu udalak datorren urritik aurrera

Aldaiko hilerriko nitxoetan 1990eko abenduaren 31 baino lehen ehortzitako gorpukiak hobitik aterako ditu Arrasateko Udalak urriaren 1etik aurrera. Gutxi gorabehera, 650 gorpuki aterako ditu. Horien artean, norbaiten senitartekoa agertuz gero, irailaren 15a arte izango udalari jakinarazteko gorpukiarekin zer egin gura duen.

Eta gorpukiekin zer egin erabaki ezean, San Kristobal hilerrian dagoen herriko hezurtegian utziko ditu udalak. /5


**LENIZ MOTOR**
JUAN M. ZUAZUBISKAR
BASO, LORATEGINTZA ETA NEKAZARITZARAKO TRESNAK



Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78
VIKING
STIHL




## Mendeberri proiektua aurkeztu du Retegik

Mondragon Unibertsitateko arduradunek Mendeberri proiektuaren aurkezpena egin zuten joan den martitzenean Arrasaten. Orain arte indarrean egon den hezkuntza eredua aztertu du MUk eta, bide batez, gaur egungo gizartearen beharretara moldatu du hezkuntza hori. Hortaz, Mendeberri proiektuak irakaskuntza tradizionalaren ereduaren berrikuspena dakar /SAIOA OIANGUREN

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • HAUTESKUNDEAK/8 • KIROLA/10-11 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA/18-19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/23

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 18a

# Alzheimerra

## Gurean hedatuta dagoen gaixotasuna eta albokoen behar handia duena

IKER BARANDIARAN

Alzheimerra egungo gizartean oso hedatuta dagoen gaixotasun degeneratiboa da. Ingurune hauetan bizitza maila altuagoa den heinean, oro har, gizakiak urte gehiago bizitzen direnez, gehienbat hirugarren adineko biztanleriari kalte egiten dio gaitz latz honek.

Jende askok era ezjakinean Alzheimerra oroimenaren galerarekin identifikatzen badugu ere, gaixotasun hau ez da horretara bakarrik mugatzen, oroimenarena hasieran gertatzen den galera izan arren, gaixotasunaren eraginak ugaltzen joaten baitira. Are gehiago, gorputzaren koordinazioari ere gogor eragiten dio eta denbora aurrera doan heinean, kasu gehienetan, kalteak areagotuz doaz.

Debagoienean Alzheimerra pairatzen duten gaixoen kopuru zehatza ez daukagu, baina adituen esanetan jende asko da berau dutenak. Gaixo hauek izugarri sufritzen badute ere, beraien senitarteko edo lagunek, albokoek, ere sufrimendu handia pairatzen dute. Min eta behar hori nolabait saihesteko, Gipuzkoako Alzheimerdunen Senitartekoen Elkartea (AFAGI) sortu zuten, eta berehala Debagoienean ere lanean hasi ziren. Bailarako kideak hilean bi aldiz elkartzen dira elkarri laguntza emateko eta euren esperientzien berri emateko.

Elkarte honek eta Aita Menni Ospitalak sarri Arrasateko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Kutxaren laguntzaz Alzheimer gaixotasunaren gaineko jardunaldiak antolatzen dituzte, batez ere Arrasaten. Eta aurtengo maiatza ez da salbuespena izan. Hilabete hasieran hasi eta ekainaren bukaerara arte jardunaldiak osatzeko zenbait hitzaldi egiten ari dira Arrasateko Monterron Kultura Etxean. Landu dituzten eta landuko dituzten gaien artean, "Zer da Alzheimer gaixotasuna", "Alzheimer gaixotasuneko gizarte arazoak" eta "Jardunaldien gaineko ondorio eta balorazioak" jorratuko dituzte besteak beste.

Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizartekintzak eta AFAGIk aurten ere Alzheimer gaixotasuna edo bestelako dementzia duten gaixoentzat eta haien zaintzaileek –batez ere senitartekoek– giro lasaiean atseden egun batzuk hartzeko aukera izan dezaten oporren programa martxan jarri berri dute. Atseden egun hauetan, profesionalez lagunduta egongo dira gaixo eta senitartekoak, eta gainera, beste senide batzuekin harremanak eta esperientziak trukatzeko aukera izango dute zaintzaileek.



Maiatz eta ekainean Alzheimer gaixotasunari buruzko jardunaldiak egiten ari dira Monterron jauregian. IKER BARANDIARAN

## Serapi Arantzabal

**ALZHEIMER GAIXO BATEN SENITARTEKOA**



Serapi Eibarren bizi izan da zenbait urtetan bere senarrarekin, baina hau gaixotzean, Arrasatera, senitartekoen albora joatea erabaki zuen, senarra hobeto zaintzeko.

**Senitarteko batek Alzheimerra edukitzea oso gogorra omen da.**

Bai, hala da. Nire kasuan, Arrasatera jo nuen Eguneko Zentroa eta familia ere bertan nuelako. Eibarren bakarrik nengoen eta nik bakarrik laguntza barik ezin nuen. Zoritxarrez, hona heldu bezain laster erroldatu arren, eskubideak galdu genituen eta Eguneko Zentroan egoteko dirulaguntzak jasotzeko bi urte erroldatuta egon beharra dagoela esan ziguten. Gure poltsikotik ordaindu eta azkenean subentzioak jaso ahal izan ditut. Aldundiak araudi horiek aldatu beharko lituzke. Ez da bidezkoa.

**Zeinek lagundu zaitu gehien?**

Senitartekoez gain, Eguneko Zentroko langileek –ez dakizu nolako laguntza ematen duten– eta baita diagnostikoa eman zidan medikuak, hasieratik Alzheimerra zer den argi azaldu zidalako, eta horri oso garrantzitsua deritzot. Horretaz gain, AFAGIkoek, pasa den udan nire senarra eta biok eurekin oporretan joan eta laguntza izugarria eman baitziguten.

## Elena Berezibar

**AITA MENNI OSPITALEKO GIZARTE LAGUNTZAILEA**



Elena Berezibar Aita Menniko gizarte laguntzailea da eta Benito Menni erresidentziako koordinatzailea ere bada. Egunero, dementzia duten gaixoekin lan egiten du, eta horien artean Alzheimerra duten asko daude.

**Asko izango dira, baina zeren premia dute gehienbat Alzheimer gaixoek eta euren senitartekoek?**

Familiek laguntza handia behar dute gaixoa zaintzeko. Lehenik eta behin, gaixotasunari buruz ahal den informazio gehien: gaixoekin nola egon, zein errekurtso dauden, etab… Orokorrean, informazioa, orientazioa eta laguntza edo babesa, bai aldamenekoarena eta baita profesionalena ere.

**Zer bilakaera izan du azkenaldian Alzheimer gaixotasunaren tratamenduak?**

Gero eta kasu gehiago agertzen dira, eta sendiak eskaera ugari egiten dabiltza. Agian, horren eraginez, une honetan diru asko inbertitzen ari da gaixotasun honen inbestigaziorako. Era berean, enpresa farmazeutikoak botika berriak bultzatzen dabiltza gaixotasunaren eragina arintzeko asmotan. Kasu asko daude eta denok zerbait jarri behar dugu, bestela hemendik urte batzuetara arazo handia izan behar da.

**EDURNE ETXABE/AFAGIko presidentea**

# "Duela 10 urte ez zegoen inolako informaziorik"

**Edurne Etxabek Alzheimerra senitarteko baten bitartez ezagutu eta gaitz honen informazio eta prebentzioaren alde lan egiteari ekin zion.**



**Zelan eratu zen Gipuzkoako Alzheimerdunen Senitartekoen Elkartea (AFAGI)? Eta noiztik zara presidente?**
Aurten 10 urte beteko ditu, baina Euskal Herriko beste probintzietakoak ere iraupen antzekoa dute. Duela hamar urte ez zegoen ia liburirik gaitz honen inguruan, diagnostikoak besterik ez geneuzkan. Gaixoen senitarteko kopuru batek topo egin genuen eta lanean hasi ginen, batez ere informazioa lortzeko eta eguneroko arazoak konpontzeko. Neuk presidente urte eta erdi daramat, baina elkarte barruan beste zortzi inguru egin ditut. Horretaz gain, Gipuzkoakoa eratu baino lehen, Arabakoan parte hartu genuen euren esperientzia ezagutu ahal izateko.

**Zein behar nagusi ikusi zenituzteten elkartea eratzean? Eta egun zein dinamika bultzatzen dituzue?**
Elkartea sortu genuenean, medikuak ere nahiko galduta zeuden eta gaitz honetan oso espezializazio gutxi zegoen. Instituzioekin borroka asko egin behar izan dugu eta ongizate mailan hainbat lorpen eskuratu ditugu. Hain zuzen ere, etxez etxeko laguntza eta Eguneko Zentroak bermatzea. Bestalde, erresidentzietako langileria gaitz honen inguruan hezten hastea ere oso derrigorra iruditzen zaigu, denon onurarako. Gizarteak eta batez ere erakundeek konturatu beharko lukete egunero gaixoarekin 24 ordu egotea oso gogorra dela.

> **"Erakundeekin borroka egin eta ongizate mailan hainbat lorpen eskuratu ditugu"**

> **"Susmo txiki baten aurrean, medikuek pazienteari testa egin beharko liokete ziurtatzeko"**

**Beste gabezia asko ere izango dituzue, ezta?**
Bai. Aldundiak eta udalek laguntza eskaintzen diguten arren, zenbait esparrutan hobetu beharreko asko dago. Gauzak erraztuko lituzkeen gauza bat medikuek pazienteari diagnostiko goiztiar bat egitea da. Halako gaitzik daukan susmorik balego, horretarako prestatuta dagoen test sinple bat egitea eta pazienteari arreta handiagoa ematea. Administrazioaren errua izango da, baina gaixotasuna ahalik eta azkarrago somatu, onuragarriagoa da gaixoarentzako zein senitartekoentzako.

**Noiz hasi zineten bailaran lanean? Eta zein da Debagoieneko egoera alor honetan?**
Bailaran, Arrasaten, duela 7-8 urte lehengo hitzaldia eman genuen. Orokorrean, Gipuzkoan 600 bazkide inguru gara, baina ez ditugu horiek bakarrik atenditzen. Zoritxarrez, Gipuzkoan gizarte laguntzaile bat egun osoz eta egun erdiko administrari bat besterik ez daukagu. Donostia aldean sendiak laguntzeko boluntario batzuk baditugu, herrietara ere zabalduko nahiko genituzkeenak. Bailarara bueltatuz, hilean bi aldiz biltzen gara elkarri laguntzak emateko taldeak osatuz, barruko egonezina atera eta besteen esperientzietatik ikasiz. Gaixo kopuruei buruz ezer gutxi esan diezazuket baina bailaran ere jende ugari dago. Orokorrean, bizitza tasa handitu da eta ondorioz, gero eta gaixo gehiago daude. Informazio edo laguntzarik nahi duen edonork jakin dezala Arrasate Irratiaren egoitza zaharrean gaudela, San Viator parean, eta era berean, 656-72 95 93 telefono zenbakian aurkituko gaituztela. Deitu lasai!!

## Sendabiderik gabeko gaixotasuna

Alzheimerra gaixotasun degeneratiboa da, denbora igarotzen doan heinean gaixoa are eta gehiago kaltetu eta ahultzen duena. Adituen esanetan, gaitz honek polikipoliki gaixoaren neuronak nolabait deskonektatu egiten ditu, gorputz atal eta burmuineko atalen berezko deskoordinazioa areagotuz. Hasieran, galera handiena gizakiaren oroimenean agertzen da. Era berean, kasu gehienetan, bere senitarteko edo ingurukoak galera horren bitartez ohartzen dira euren albokoek arazoren bat daukatela eta laguntza premia larria dutela. Adituek azpimarratzen duten bezalaxe, gero eta lehenago antzeman albokoak gaixotasun hori daukala, are eta gehiago lagundu diezaiokete senitarteko eta lagunek.
Denboraren ondorioz, gaixotasuna gizakiaren gorputz ataletara hedatuz joango da eta horren ondorioz, gaixoaren mugimendu eta psikomotrizitatea kaltetuz joango dira pixkanaka. Beraz, gaixotasunak ez du hoberuntz egiteko joerarik, alderantzizkoa baizik, eta oraindik ez diote Alzheimerrari sendabiderik aurkitu.
Dena den Alzheimerra ez omen da gaitz berri bat, duela ehun bat urte arte gainontzeko dementzia senilengandik bereizten ez zen arren. Ordura arte honen sintomak eta gaixotasuna bera hirugarren adineko dementzien barruan sartzen ziren ezjakintasunaren ondorioz. Edonola ere, XX. mende hasieran, Alzheimer deitura zuen mediku aleman batek 53 urteko emakume gaixo bat sendatzeko asmotan ari zela gaixotasuna deskubritu zuen eta zegokion bezala bereiztu eta aztertu zuen. Era honetan, gaitz latz hau lehenengo aldiz definitua izan zen, eta ondorioz, bere abizen berbera hartu zuen deskubritu izanaren errekonozimendu gisa. Tamalez, gaixotasuna ezagunagoa den arren, ez dago oraindik sendabiderik.

## *Bailaran, labur*

### HEZKUNTZA

**MUren hezkuntza eredua eta eskaintza aurkeztu ditu Jabier Retegi errektoreak**

Mondragon Unibertsitateko arduradunek Mendeberri proiektuaren aurkezpena egin zuten joan zen martitzenean Arrasaten. MUko errektore Jabier Retegik egin zuen aurkezpena Arrasateko Biteri ikastetxe nagusian. Orain arte indarrean egon den hezkuntza eredua aztertu du MUk eta, bide batez, gaur egungo gizartearen beharretara moldatu du hezkuntza hori. Beraz, Mendeberri proiektuak irakaskuntza tradizionalaren ereduaren berrikuspena dakar. Gaur egungo gizarteari eta eskaintzari erantzun nahi dio horrela. Jabier Retegik MUren plangintza estrategikoa ere azaldu zuen martitzenean. Datozen zortzi urteetan betetzea aurrez ikusi dute. 2000-2001 ikasturtean, 3.791 ikaslek egin dute matrikulazioa Mondragon Unibertsitatean. Hazkunde horren arrazoietako bat lizentziatura berrien eskaintza da: izan ere, Psikopedagogia sartu dute eta, horrez gain, Ingeniaritza Industrialaren, Informatikoaren eta Humanitateen bigarren zikloak prestatu dituzte. /SAIOA OJANGUREN

### FERITUR

**Debagoieneko turismo azokak 4.000 bisitari izan zituen asteburuan**

Joan zen zapatu eta domekan Bergaran izan zen Feritur feria 4.000 lagunek bisitatu zuten, antolatzaileek emandako datuen arabera. Feritur Arrasaten antolatu zuten iaz lehen aldiz. Aurtengo edizioan, iaz baino bisitari gehiago izatea espero zuten antolatzaileek, Halcon Bidaiak agentziak eta Debagoieneko Mankomunitateak. Hala ere, joan zen urteko kopuruari eutsi diote aurten, baina antolatzaileak pozik azaldu dira. Batetik, herritik kanpora ateratzeko moduko eguraldia egin zuelako eta, bestetik, domekan hauteskundeak izan zirelako. Feria Bergarako Seminarioan jarritako karpa handi batean antolatu zuten. Handizkariek jarritako 17 erakustoki, Debagoienari buruzko informazioa edota hegazkin konpainien eta turismo arloko beste hainbat enpresen eskaintza ezagutu ahal izan zuten bisitariek. /ENEKO AZKARATE

### HEDABIDEAK

**Goiena egitasmoa Gasteizko merkatarien aurrean aurkeztu da**

Goiena Komunikazio Kooperatiba Gasteizko merkatarien aurrean aurkeztu zen lehenengo aldiz, atzo, eguena. Aurkezpena NH Canciller Ayala hotelean izan zen. Mikel Irizarrek eta Gotzon Arzelusek, Goienako zuzendari nagusia eta zuzendari komertziala hurrenez hurren, kooperatiba berriaren aurkezpen laburra egin zuten, haren produktuak, profesionalak eta proiektuak azalduz. Gasteizko merkatariek badakite Debagoiena etorkizun handiko bailara dela, hango jendeak kontsumo ahalmen handia duela eta askok Arabako hiriburua aukeratzen dutela aisialdirako eta hainbat erosketa egiteko. Goiena bera izan daiteke, aurrerantzean, jende horrekin harremana egiteko bitartekorik egokiena. Goiena kooperatiba euskarazko herri komunikabideetan dagoen talderik sendoena da. /E.A.

### HAUTESKUNDEAK

**Blanca Roncal sozialista eta Rafael Uribarren jeltzalea Legebiltzarrera**

Domekan egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bi debagoiendar izan ziren aukeratuak: Blanca Roncal sozialista eta Rafael Uribarren jeltzalea. Debagoieneko beste bost hautagai zihoazten zerrendetan, baina aipatutakoek bakarrik lortu zuten ordezkaritza. Mireia Unamuno Antzuolako alkatea seigarren zihoan EHko Gipuzkoako zerrendan, baina ezker abertzaleak Gipuzkoan lau legebiltzarkide bakarrik lortu ditu, lehen baino hiru gutxiago. Gainerako hautagaiak atze samarrean zihoazen eta ez zuten ordezkaritza lortzeko aukerarik. /E.A.

**OÑATI** PRESOEN ALDEKO EKINTZAK

# Euskal presoen eskubideak aldarrikatuko dituzte zapatuan

*Bazkari herrikoia eta kontzertua antolatu dituzte, besteak beste*

AINTZANE IRIZAR

Euskal presoen aldeko eguna antolatu dute Oñatiko EPEA Gazte Ekimenekoek biharko. Euskal presoei "irribarre bat helarazi" nahi diete egun honekin, eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Eguerdiko 12:00etan poteo bitxia egiteko asmoa dute: bertso-txalaparta-trikipoteoa, hain zuzen ere. Eguerdiko 14:30ean, berriz, herri bazkaria egingo dute herriko frontoian. Bazkarira joan nahi dutenentzat, Arrano, Boga eta Pako tabernetan egongo dira txartelak salgai 1.500 pezetan. Bazkalostean bertso-saioa egongo da, Xabier Silveira, Oihane Enbeita eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin. Eta bertso-saioaren ostean, euskal presoei omenaldia egingo diete.

Gauean, ostera, 22:00ak aldera, kontzertua egongo da frontoian bertan. Honako musika talde hauek arituko dira hantxe: Golpe de Estado, Kaotiko, Txapelpunk eta Sagarroi, hain justu.

**PATXI ELORTZA JOAN ZAIGU**

Patxi Elortza argazkilaria, Patxitxo bezala ezagunagoa, joan zen martitzenean hil zen. 90 urte zituen; horietatik mordoxka bat argazkilari lanetan ibili zen, eta horregatik zen hain ezaguna herrian. Gazte-gaztetatik izan zuen argazkilaritzarako zaletasuna. 38 urte zituela erosi zuen bere lehendabiziko argazki kamera Donostian, eta ordutik ez zion bere lanbidea izango zenari utzi.



**GOTZON OSINAGA OMENDUKO DUTE DOMEKAN.** Oñatiko Udal txistulari taldean 29 urtez aritu ondoren, taldea utzi berri du Gotzonek. Orain, Oñatiko Udalak, txistulari taldeak eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteak omenaldia egingo diote, urte hauetan guztietan eginiko lanagatik. Domekan izango da, maiatzaren 20an, Santa Anan, arratsaldeko 19:30ean.

**BERGARA** ALDAKETAK TRAFIKOAN

# Ramon Maria Lili kalea itxi egingo dute astelehenean

*Horrek trafikoa desbideratzea ekarriko du*

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean itxiko dute Ramon maria Lili kalea eta hamabost egunez itxita egongo da. Arrazoia da beste kale berri bat eraikitzeko hainbat obra egingo direla. Ondorioz, trafiko desbiderake-tak egongo dira. Azkenaldian lan ugari egiten ari dira Ibargarai aldean eta ingurua itxuraldatzen ari da.

Hilaren 21ean, astelehena, hasiko dira lanak. Ramon Maria Lili eta Ibargarai kaleko errotonda berria lotuko dituen kalea eraikitzeko lanak hasiko dira. Hori da Ramon Maria Lili ixteko arrazoia. Hamabost egunez egongo da itxita. Ondoren ireki egingo dute, izan ere, ekainaren 1ean Pentekoste jaiak hasiko dira, eta ordurako irekitzea komeni dela aipatu dute udaleko arduradunek. Ordurako obrak amaituta ez badaude, jaien ostean berriz itxiko dute bidea.

**DESBIDERAKETAK**

Ramon Maria Lili kalea ixteak, hainbat aldaketa ekarriko ditu herri barruko trafikoaren antolamenduan. Batetik, Espoloia eta Zabalotegi kaleetatik datorren trafikoak derrigorrez San Pedro kalerantz jarraitu beharko du; bestetik, Barrenkalea eta Irizar kaletik datozen ibilgailuek Komenio kaletik jarraitu beharko dute, ez da-eta Bidekurutzeta kaletik irteerarik egongo.

Beraz, normalean Komenio kaletik eta San Martin plazatik autobus geltoki aldera doan trafikoak, Ibargaraitik edo saihesbidetik joan beharko du obrek iraungo duten hamabost egunetan. Arestian aipatu bezala, lanok Ramon Maria Lili eta Ibargarai kaleko errotonda berria lotuko dituen errepidea eraikitzeko dira. Behin eraikita, ibilgailuek bide hori erabili beharko dute eta Ramon Maria Lili kalea baztertuta geratuko da.

Aurrerago, errepide berri hori luzatu egingo da. Ramon Maria Lilitik gorantz, Mariaren Lagundia ikastetxeko bidegurutzeraino, Arrizuriaga parkearen ertz batetik igaroz.

**Zertzelada**

**Kale mozketak hamabost egun iraungo ditu, izan ere, ekainaren 1ean herriko jaiak hasiko dira eta. Bien bitartean, gidariak argi desbideraketekin**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**LAN POLTSA**

osatu nahi du honako lanpostuak betetzeko:

**KAZETARIA**

Baldintzak:
- Euskaraz ondo jakitea
- Kazetaritza ezagutzea
- Bailara ezagutzea
- Gida baimena eta autoa izatea

**MAKETATZAILE-DISENATZAILEA**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea
- QuarkXPress, FreeHand eta Photoshop ondo ezagutzea

*Curriculumak aurkezteko epea maiatzaren 28an bukatuko da.*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea z/g
20500 ARRASATE

**ARETXABALETA** UDABERRIKO JAIAK



**Urtero moduan herritar ugarik parte hartuko du euskararen eguneko Larrin dantzan.**

# Euskararen eguna eta Otala zelaiko erromeria asteburuan

AMAGOIA LASAGABASTER

Loramendi euskara elkarteak eta jai batzordeak Udaberriko Jaia antolatu dute asteburuko. Egubakoitzean, Izturi musika taldeak emango die hasiera jaiei. Gero, zapatuan, euskararen eguna, eta domekan, Otala Zelaiko erromeria egingo dituzte.

Euskararen egunean, babajan herrikoia izango da berrikuntza-rik handiena. Horrez gain, egunean zehar, trikitilariak, dantzak eta erakusketak izango dira. Azkenik, gauean, Txatunga Benbe taldeak girotuko ditu herriko kaleak.

Domekan berriz, Otala Zelaiko erromeria ospatuko da. Hemen ere, ez da herri bazkaria faltako. Aurten gainera, Kulki taldearen eskutik herri jokoetan parte hartzeko aukera izango dute koadrilek.

**ELGETA** JAIAK

# Azoka nagusiko egitarauaren aurkezpena ekainaren 15ean

IBAN ARANTZABAL

Jai batzordeak egitaraua aurkeztuko du jendaurrean. Jaien aurreko asteetan, hortaz, egitarauaren nondik norakoa jakin gura duenak Espaloian izango du aukera. Jai batzordeak gonbidapenak banatuko ditu Asentzio egunetik aurrera eta ekainaren 10a bitartean. 275 gobidapen daude. Horietako batzuk eskura emango badira ere, jendeak udaletxean jaso ahal izango ditu gainerakoak. Gonbidapen horiek dituztenek jarlekua izango dute gordeta. Hala ere, ez diote aterik inori itxiko, edonor doan sartu ahal izango da eta.

Aurkezpenaren ostean, gaztelaniaz eta euskaraz dagoen egitaraua banatuko da eta gero Sutargi ikuskizuneko dantzariak igoko dira oholtzara. Suaren inguruko dantzak aurkeztuko dizkigute dantza tradizionaletik abiatuta osatutako ikuskizun garaikidean. Ikuskizuna berritzailea da eta berria, izan ere, oraintxe hasi dira eta ikuskizuna taularatzen.

ARRASATE | HILERRI BERRIA

# Aldaiko 650 gorpuki aterako ditu udalak datorren urritik aurrera

UBANE MADERA

Aldaiko hilerriko nitxoetan 1990eko abenduaren 31 baino lehen ehortzitako gorpukiak hobitik aterako ditu Arrasateko Udalak urriaren 1etik aurrera. Gutxi gorabehera, 650 gorpuki aterako ditu. Horien artean, norbaiten senitartekoa agertuz gero, irailaren 15a arte izango udalari jakinarazteko gorpukiarekin zer egin gura duen.

Eta gorpukiekin zer egin erabaki ezean, San Kristobal hilerrian dagoen herriko hezurtegian utziko ditu udalak, eta halaber, hezurtegi pribatua eta errausketa zerbitzuak ere eskaintzen ditu aukeran.

Informazio gehiago behar izanez gero, udaleko zerbitzu teknikoetara edo San Kristobalgo udal langileengana jo beharra dago.

**CASINO ELKARTEA BOTA EGINGO DUTE**

Urtebete baino lehen, udalak Casino elkarte gastronomikoa dagoen eraikina bota egingo du. Hori dela eta, elkartekoak beste leku baten bila hasi dira. Are gehiago, dagoeneko aurkitu dute leku bat. Datorren eguazteneko batzarrean jakinaraziko diete bazkideei, gero, guztien artean bozkatzeko. Hortaz, komeni da ahalik eta bazkide gehien joatea, hartu beharreko erabakia ahalik eta zehatzena izateko.

Casino elkartea izen handikoa da herrian. San Isidro, Udalpe eta Danok Bat elkarteekin batera SUDC izeneko elkartea sortu zuen. Ordutik hona, makina bat ekintza egin du elkarte horrek herrian: danborrada, esaterako.

**ELKARTASUN EGUNA**

Maiatzaren 26an, Hirugarren Munduarekiko Elkartasun Eguna ospatuko dute Seber Altube plazan. Egun osoan zehar erakusketak, bidezko merkataritzako produktuak, umeendako jokoak, bideoak... izango dira ikusgai, baita kanpoko gonbidatu ugari ere (Intermon, Mugarik Gabe, Alboan...). Arrasateko gobernuz kanpoko erakunde guztien artean antolatutako eguna da Hirugarren Munduarekiko Elkartasun Eguna. Datorren zapatuan izango da, bihar zortzi.

ARAMAIO | EUSKAL DANTZEN ERAKUSTALDIA

# Arabako dantzen erakustaldia izango da domekan Aramaion

*Aramaioko Txakolin Dantza prestatu dute herritarrek egun horretarako*

UBANE MADERA

*Arabako Bertako Dantzen Erakusketa* egingo dute domekan Aramaion. Oso ekitaldi berezia izango da, gainera; aramaioarrak bereziki prestatu dira egun horretarako, izan ere, *Arabako Bertako Dantzen Erakusketan*, Arabako herrietan egiten diren dantzak dira protagonista.

**LEGUTIORA**

Ainara Inunziagak, Aramaioko Lagun Artea dantza taldeko arduradunetako batek adierazitakoaren arabera, *Txakolin Dantza* aramaioarra izan arren, herrian ez dago inor dantza hori erakusteko eta Legutiora joaten jardun dute, hango Aitor Juarros dantzariarekin ikastera. Gainera, zortzi laguneko taldea sortu da, justu-justu.

**EGUN OSOAN**

Aramaiora etorriko diren dantza taldeekin hasiko eguerdian ekitaldia guztiekin kalejira eginez: Labastida, Yécora, Oyón, Pipaón eta Gasteizko dantza taldeekin, hain justu. Guztira, 160 bat lagun elkartuko dira. Gero, jaunartzeen ondoren, 13:00etan, izango da ekitaldi nagusia. Eguraldiak lagunduz gero, herriko plazan egingo dute eta frontoian, bestela. Gero, bazkaltzera joango dira, Ikastolako jangelara, eta bukatzeko, arratsaldean erromeria.



Besteak beste, kiroldegia babesleku izango da larrialdietan.

**20 URTE KARTZELAN**

Bestalde, Jon Agirre preso aramaioarrak 20 urte bete ditu kartzelan eta hori dela eta, herritarrek eta ingurukoek gogora ekarriko dute zapatuan. Manifestazioa deitu dute arratsaldeko 19:00etarako eta ekitaldia ondoren. Ekitaldian bertsolariak, bideo emanaldia eta hitzaldiak izango dira, besteak beste. Inguruko herrietatik ere egin dute Aramaiora joateko deia. Arrasaten, esaterako, 18:30etan Arbolapetatik aterako dira auto-karabanan.

ESKORIATZA



## XVII-XVIII. mendeko burdinola eta errota aztarnak

Eskoriatzako Olazar auzoan XVII-XVIII. mendeko burdinola eta errota baten aztarnak aurkitu dituzte. Hodi batzuk sartzen ari zirela, hondeatzeko makinarekin zuloa egiten hain justu, arku baten aztarnak topatu zituzten. Gauzak horrela, Aranzadi elkarteari jakinarazi zioten eta elkarte horrek aztarnak aztertzen dihardu. Lehenengo datuen arabera, burdinola eta errota lotzen zituen ubidea izango litzateke. Leku horretan aparkalekuak egiteko asmoa zuen udalak eta oraingoz, behintzat, bere horretan jarraituko du proiektuak. Hori bai, oraindik Aranzadi elkartekoak hantxe daude eta hantxe segituko dute, bihar arte behinik behin. Gero, aurkitutako emaitzen arabera, udalak aztarnekin zer egin erabakiko du. /SAIOA OJANGUREN

ANTZUOLA | SAN ISIDRO

# Zapatuan ospatuko dute San Isidro eguna, baina ganadurik gabe

*Gaztetxekoek bertan behera laga dute aurrez ikusitako egitaraua*

AINTZANE IRIZAR

San Isidro egunean denetik egon izan da ikusgai, baina ohikoena ganadua izan ohi da, bai ardiak eta baita behiak ere. Aurtengoan ez da horrelakorik egongo. Hala ere, egongo da zer ikusi eta eta zer erosi: gazta eta baserriko bestelako produktuen saltzaileak, eskulangileak... Lehiaketan parte hartu duten kukumarroak ere ikusgai egongo dira, eta denentzat egongo da, gainera, sariren bat edo beste.

Goizeko 11:00etan meza nagusia ospatuko dute. Meza ostean, eta garai bateko ohiturari jarraituz, bi bertsolari arituko dira bertsotan udaletxeko balkoitik: Jokin Solozabal eta Unai Agirre, hain zuzen ere. Arratsaldeko 18:30ean, berriz, erromeria izango da Zurrategin, Muganix taldearekin. Gaztetxekoek ere egitarau zabala zuten prestatua egun horretarako, baina gehienek azterketak dituztela-eta, bertan behera lagatzea erabaki dute azkenengo momentuan.

FORUM
KIROLA EGITEN DUGU

**OHARRA:**

Forum Sport SA-k maiatzaren 11n argitaraturiko **LANPOSTU** eskaintzako iragarkian, curriculuma bidaltzeko azaltzen den **186 posta-kutxa Basauri (Bizkaia)** posta-kutxari dagokio.

COMERCIAL BRUNET



YAMAHA • HONDA
KAWASAKI • SUZUKI

Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

## Zabalik



BEATRIZ ZABALONDO

# Mozkorraldiak eta... biharamunak

**Baten batek galdu biako jok ba! Hauteskundeetan denak garaile izaten dira beti, norbera ez beste guztiak, galtzaile.**

**Alde batetik jarritako medio oparo eta estrategia makurrak, denak kale. Bestetik ia itzalpean geratutako soinu monokromatiko apalak, denak kale. Eta erdi-erdian, ia zirkinik egin ez dutenak, etxeko habe bakarrari eusteko ahalegin hil edo bizikoan. Batetik eta bestetik, epelak hartu eta hartu (besterik ere hartuko zuten dudarik ez daukat, baina).**

**Batzuk punta-puntako tresneria eta baliabideekin, dirudunekin; besteak, ia beti bezala, boluntarioen amets gozoen indarra eta beste ezer askorik barik.**

**Papartsu lehenengoak, Espainia berreskuratu behar zela eta. Kontuak biribildu ezinik ibili naiz: Hego Amerika konkistatzeko bost lagun *aditu* behar baziren bakarrik, haren aldean orratz-burua den Euskal Herrira zenbat *gonbidatu* etorri diren ikusita.**

**Bulartsu, gehienez ere, bigarrenak. Aldarrika eta aldarrika, oihartzuna eta arnasa bera ere ukatzen zaiela jakinda.**

**Partida irabazitakoan, sekulako mozkorra harrapatzekotan guztiak. Aldez aurretik behintzat, denak garaile. Denak zein baino zein.**

**Nago, mozkorraldi hau aspaldiko ankerrena izan dutela.**

**Nago, mozkorraldi honen biharamunak inoizko durduritsuen egingo duela oihartzun zenbaiten buru-zirrikituetan barrena.**

**Biharamunaren biharamunera etorrita, zaharrak berri.**

**Nago, lanean hasi beste erremediorik ez dagoela hemen, ipuinak bazter utzita.**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Faxa

### Triunfalismorik ez

Batek baino gehiagok esango duen bezala, domekan izandako hauteskunde emaitzekin, "EA/EAJkoak kabitu ezinda egongo dituk", edota "harro puztuta egongo dituk". Eta, egia esan nahi bada, hala gaude, baina argi dugu bidea hasi besterik ez dela egin, eta herri honen nahi ezberdinekin bat egiteko denon beharra eta laguntza dagoela.

Partidu politikoetan dihardugunok azken hauteskunde hauetan zerbait ikasi badugu, zera da: herriak bere tokian jarri gaituela. Herria gauza da egoera politikoaren diagnostiko bat egiteko, eta ondoren bere iritzi kritikoa emateko. Adierazi digu ikaragarri kezkatuta dagoela herri honen etorkizunaz. Baina adierazi digu baita ere, politikook ez dugula herri hau ezagutzen; edo ezagutzen ez dugunarena egiten dugula.

Zeinek ez du harriduraz hartu emaitza asko? Hau da tristeena, eta zuzendu behar duguna. Alegia, partidu politikoen arteko zilbor heste pertsonaletara gehiegi begiratu barik, herriak behin baino gehiagotan adierazi izan duenari kasu egin behar dogula, itsukerietan jausi barik. Eta bukatzeko esango duguna ez da berria, baizik eta herri honek bizi izan zuen unerik gordinenean, gerra zibilean hain justu, Jose Antonio Agirrek esan zuena: "Partidu guztien gainetik herria dago". Zoritxarrez, orduan ere hori esatearren ezulertua izan zen. Beraz, errespeta dezagun herria.

EA eta EAJ
Antzuola

### Aski da!

Azken hilabeteotan, Garzon sasi epaileak abertzale kutsua duen edozeri nola eraso egin dion ikusi dugu, beste batzuen artean AEK, EKIN, Zabaltzen... Azken erasoa Haika gazte erakundearen aurka izan da, berau legez kanpo utziaz.

Pertsonaia hau, inpunitate osoz, espainiar gobernuaren interesaren aurka dihoan oro neutralizatzen saiatu da, gobernuaren zerbitzari lanak eginaz eta hainbat herri mugimendu kriminalizatuaz. Gainera, mugimendu hauen aurkako ekintzak, ilegalizazio hutsetik haratago doaz, hauen ondorioz, euskal herritarrak zigortzeko bide gehiago irekiz (espetxeratzeak, zigor ekonomikoak...).

Gaineratu nahi dugu, sumario honen bitartez Arrasateko alaba den Amaia Arrieta espetxeratua izan dela Auzitegi Gorenean aurkeztu eta gero.

Jakin badakigu, Euskal Herriaren aurkako eraso hauek jarraituko dutela. Ezinbestekoa da beraz, egunez egun subirautzaren aldeko lanean murgiltzea, eraso arrotz hauek behin betiko amaitu daitezen.

Baina ez dira ohartzen, era honetako muntaia politiko-judizialekin, ez gaituztela kokilduko eta Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan jarraituko dugula. Besterik gabe, dei egin nahi diegu euskaldun guztiei, hurrengo egunetako mobilizazioetan parte har dezaten, besteak beste, bihar, zapatua, Donostian burutuko den manifestaldi nazionalean.

Euskal gazteria aurrera! Amaia askatu!

EUSKAL GAZTE BILGUNEA
Arrasate

## Hemeroteka

### Herri baten harrotasuna

(...) Euskal herritarrek arrazoiak soberan zituzten euren herria hainbeste iraintzen eta, gutxiago bada ere, idien edo zarpailen herria bailitzan mespretxatzen zuten gurutzatu berri horien aurrean beldur ikaragarri izateko. Sarri gertatzen zaie unean uneko aznarrei, mayorrei eta garzonei. Ezin dute ezkutatu espainiarra ez den nazionalismoarenganako euren gorrotoa, aberri bakar eta banaezinaren alde ez erailtzen ez hiltzen ez direnenganako euren mespretxua. Gorroto eta mespretxu horiek galbidera daramatzate. Errespetagarria den herri batek errespetatu dezatela merezi du beti. Bera osatzen duten herritarrek hainbat pentsaera dituzte, baita gaur-biharretarako hamaikatxo planteamendu, eta euren guraso, aiton-amona eta arbasoen lurraldean arazorik gabe bizi dira elkarrekin. Bizikidetasun hori hautsi nahi izan dute, zirikatu, eta gurutzada berrien izenean zatikatu. (...)

Joaquín Navarro Estevan
DEIA. 2001-05-16

### Hauteskundeak nahi zituzten

(...) Iritzi nahasiz jositako hilabete hauek, pertsona batzuengan hainbesteko zarakarra sortu dute, ezin direla bildutako harrokeriaz libratu, eta oraindik uste dute eurak eratutako mundu artifizialak euren buruetatik kanpo izaerarik baduela. Isilik egon beharko luketenean, euren erruetatik ikasten (eurenak dira, ez besteenak), guri bizitza barkatzen eta politikari abertzaleei egin behar dutena eta egin behar ez dutena esaten jarraitzen dute. "EAJ, oro har, pozik egon daiteke lortutako emaitzekin", esan zuen pentsalari argi eta igarle batek. Hutsaren ideologo horientzat, berriz ere erratu gara. Erratu egin gara, euskaldunok masokismorako joera daukagulako, eta geure buruak zigortzea atsegin dugulako. Geure deuseztatzea kontu handiz prestatzea atsegin dugu, liluragarria zaigu. Eta terrorismoa kondenatzen dugunean, egiatan, itxurak egiten ari gara. Euretako batzuek, euren buruari galdetzen diote zertarako egin ditugun hauteskundeak, honetarako baziren. Hori da emaitzen onarpen demokratikoa. (...)

-Pello Salaburu, EHUko errektore ohia
EL DIARIO VASCO. 2001-05-16

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Maltzaga-Armiñon, Eibar-Etxabarri, Eibar-Gasteiz…, Deba arrotik Gasteizerantz abiatzeko errepide azkarrari eman dioten izenak dira. Aspaldiko egitasmoa da gure bailara zeharkatuko duen autopistarena, 70eko hamarkadakoa-edo. 90eko hamarkadan, ordea, proiektuari adarretatik heldu zioten eta orain dela bi urteko udan hasi ziren lanak Bergaran. Oso eztabaidatua izan da, ordea, proiektua. Eskualde honetako inork ez du zalantzan ipini, erabiltzen ditugun errepideak negargarri daudela eta berriak behar ditugula. Autopistaren beharraz, ordea, aldeko eta aurkako iritziak azaldu dira.

# Eibar-Gasteiz autopista beharrezkoa da gure bailararako?

## *Beharrezkoa baino premiazkoa da autopista*



ANDONI GARTZIA
Garaiako jerentea

Eibar-Gasteiz autopista beharrezkoa baino gehiago, premiazkoa dela esango nuke. Bailara honen oinarri ekonomikoa industria delako eta gaur egungo errepideak ez daudelako prestatuta Debagoieneko industrien beharrei erantzuteko. Beste lurralde batzuekin konparatuz, lehiakortasuna galtzen dugu errepide egokiak ez ditugulako. Gainera, azpiegitura egokiak eduki ez izanak kalte emozionalak ere sorrarazten dizkigu bailarako bizilagunoi: autoa hartu eta lanera heldu arte errepidean ordubete ematea ez da ona osasunarentzat.

Errepide azkarra eginez gero eta berau ordaindu behar izanez gero, bertakook ez dugula erabiliko esaten dute batzuek. Ez nago ados. Hor dugu Bilbo-Behobia autopistaren adibidea. Asko dira Durangotik Bilbora joateko autopista erabiltzen dutenak. Eta, kamino zaharra ere hor dago. Biak erabiltzen dira. Hemen ere berdin gertatuko da.

Ordaindu behar dela? Nahiago nuke doan izatea, baina hori erraza da esatea eta oso zaila egitea. Norbaitek ordaindu beharko du. Aukera bat izango litzateke Aldundiak hartzea bere gain, baina urte askotarako hipotekatuta geratuko litzateke. Beste aukera bat, diru publiko eta pribatuekin ordaintzea, hau da, Aldundiak eta banketxe, aurrezki kutxa edo beste enpresa batzuek. Azkena, erakundeek eta erabiltzaileek ordaintzea. Uste dut hau dela formularik justu eta egokiena. Azken kontu bat: ingurumena. Honekin oso kezkatuta gaude euskaldunok eta hemen beste inon baino talde ekologista gehiago dago. Erakunde publikoek ere sentsibilitate berezia izan dute kaltea txikiena izan dadin.

## *Ez du trafiko arazoa inondik inora konponduko*



IKER EZPELETA
AHTren aurkako asanbladako kidea

Argi dagoen gauza bat, bailaran dugun "trafiko arazoa" ez dela inondik inora konponduko. Bailaran barne trafikoa mugitzen da batez ere, adibide gisa, Elorregi eta Arrasate artean 16.000 auto igarotzen dira egunero, astopistak ez du xurgatuko trafiko kopuru horren urteroko hazkundea ere.

Honen harira, errepide zati honetan egiten ari diren hobekuntzak, bailarako erribera zatirik naturalenetariko bat suntsituaz, urte gutxitan kolapsatuta izango dela argi dago. Honen aurrean, "trafiko arazoa"-n trafikoa bera dela arazo ikusi beharko dugu egunen baten, eta ez azpiegiturak.

Mundu globalizatu honen aurrean, gertutasunetik datoz konponbideak, trafikoa gutxitzetik.

Nire gurasoak duela 35 urte etorri ziren Bergaratik Arrasatera, aitak lana Arrasaten zuelako; gaur egun arrunt àskoa da Arrasaten bizita egunero Donostiara lanera joatea. Ez da oso atzera joan behar gaur egun itxita dagoen etxe azpiko denda hura gogoratzeko; gaur egun, denok autoan Eroskira. Peruko zainzuriak, Galiziako esnea…

Eta honekin guztiarekin, ez dut autoaren erabiltzaile xumearen aurka jotzerik nahi, gizartea baita autoaren arabera egituratua dagoena.

## Garraiobide alternatiboak

Lastertasun Handiko Trena, Eibar-Gasteiz autopista, Beasain-Durango errepidea, Elorregitik Epelera artekoa… Bai, egia da, bailara honetan dauzkagun errepideak oso kazkarrak dira. Baina, kontuan izanda zein estua eta menditsua den gure bailara, hemendik 10 urtera egingo diren azpiegitura lanak direla-eta, ia ez zaigu geratu behar zelai edo arboladi zatirik. Garraiobide alternatiboak, tranbia esaterako, bultzatu beharko genituzke, eta autoa gutxiago erabiltzen ohitu beharko ginateke. Horretarako, kanpaina bereziak egin beharko lituzke administrazioak. Bestela, zer geratuko zaigu?

J. A. Fernandez
Arrasate

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Norekin eta zertarako osatu beharko luke Ibarretxek gobernua?*

## Gora eta Behera

**HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK**

Alde batetik, domekan horrenbeste jende botoa ematera joan izana oso azpimarragarria da. Gainera, nahiz eta Espainiako komunikabide handi gehienek oso jokaera zikina izan, herriaren nahia zein den agerian geratu da. Bestalde, mezu baikorrak luzatu dituzten alderdiak izan ditugu garaile.

**ALDERDIKERIAK**

Oro har, azkenaldian, indar politikoek euren interesei begira jokatu dute eta ez dituzte herritarrak aintzat hartu. Aurrerantzean, ordea, alderdikeriak eta fronteak ahaztu, eta elkarrizketa bultzatu beharko dute. Etorkizunean, indar abertzale eta abertzale ez direnen arteko gobernua osatu beharko litzateke.



ARANTZAZU OREGI
Bergarako Udal artxiboko arduraduna

## Koplak

### *Aritz Berraondo*

Maiatzaren 4an genuen zita
Atano hirugarrenean,
jende ugari, giro aparta
frontoiaren barrenean.

Iparraldetik datorren Xala
faboritoa gainera,
antzuolarrak aprobetxatzen
jakin du bere aukera.

Korredoreak aurka kantatzen
sekulako diru pila,
hala ere ez zen ikaraz jarri
Antzuolako mutila.

Sake bortitzak, hanka bizkorrak
eskuina primerakoa,
denbora luzez gorde ezazu
orain duzun jokoa.

Errebotetik jo eta jaso
ta dejadara jaitsi,
zein maila duzun final honetan
garbi duzu erakutsi.

Kopla hauen bidez gure aitortza
merezia daukazunez,
besarkada bat ta zorionak
pilotazaleon partez.

GERMAN MEABEBASTERRETXEA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Nerea Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Hauteskundeak 2001







## 2001/22.531 (1998/16.000)

Koalizio abertzaleak pozik egoteko moduko emaitzak lortu ditu. Lagunen eta etxekoen artean egindako boto eskariak funtzionatu egin du eta gurean ere izugarrizko igoera izan du: 6.531 boto gehiago hain justu ere. EHren kontura gehienak.

## 2001/8.492 (1998/13.062)

Behera egin duen alderdi bakarra izan da eta Debagoienean nabarmen igarri da: 4.570 boto gutxiago izan ditu. Udal hauteskundeak izan balira, EHk alkatetza guztiak galduko lituzke. Arrasaten 1.455 boto gutxiago atera ditu. Bergaran, berriz, 1.200.

## 2001/5.113 (1998/4.828)

Popularrekin indarrak batzeak ez die mesederik egin sozialistei. Oso igoera txikia izan du PSE-EEk: 286 boto baino ez. Antzuolan eta Elgetan gora egin beharrean behera egin du alderdi sozialistak. Antzuolan 19 boto gutxiago eta Elgetan, berriz, lau boto gutxiago.




## 2001/4.884 (1998/3.900)

Beldurraren botoaren bila aritu dira popularrak hauteskunde kanpainan, baina ez dute nahi adina boto eskuratu. Hala ere, gurean ere gora egin du PP/UA koalizioak, ia 1.000 popular gehiago agertu dira gure bailaran: 984 hain zuzen ere.

## 2001/2.417 (1998/1.774)

Ordago ederra lortu dute Madrazorenek Legebiltzarrerako hauteskunde hauetan. Gure bailaran lortutako emaitzek Gipuzkoan lehen aldiz legebiltzarkide bat izatea ekarri diete. EHrekiko boto kritikoaren zati bat Ezker Batua alderdiak jaso du gurean ere.

## ABSTENTZIOA

## 2001/10.190 (1998/14.383)

Parte hartzea izugarria izan zen domekan. Hamar lagunetik zortzik eman zuen botoa Debagoienean. Sekula ez da horrelako parte hartze handirik izan. Aramaion bozkatu zuten gehien: %88ak. Abstentzioak, beraz, zazpi puntu egin zuen behera.

**ERABATEKO GEHIENGOA.** Gure bailara EAEn gertatu denaren isla baino ez da. Gurean ere, EAJ/EA izan da nagusi eta, zigortuena, ostera, EH. Esan behar da, gainera, EAJ/EA koalizioak erabateko gehiengoa izango lukeela gure Legebiltzar berezian. Bestalde, Ezker Batuari konfiantza handiagoa emango genioke Gasteizko gobernua debagoiendarron esku balego. Hemengook askoz ere legebiltzar abertzaleagoa aukeratuko genuke. EAJ, EA eta EHri 54 eserleku emango genizkieke, hau da, %58,6. Erkidegoan, %52,9.



























Urteetan, 13 urtetan hain zuzen ere, Leintz Gatzagako alkatea izan da. Azken agintaldi honetan, ostera, Fagorrek Polonian erosia zuen lantegi batera joateko proposamena jaso zuen. haruntz eta honuntz dihardu azkenaldian.

IKER BARANDIARAN

**Nondik datorkizu "Gerra" gaitzizena?**

Gure aitajauna Aretxabaletako baserrietxe baten bizi zen, Kalebarrenien, eta eurek maizter jardun aurretik etxeari Gerra deitzen zioten, jauntxo batzuengatik. Horrela gelditu zen, gure aitajauna eta gure aita Gerra ziren, eta ni neu ere bai.

**Zenbat urte egin dituzu Leintz Gatzagako udalean?**

1987an alkate hasi eta hamairu urte jarraian egin nituen. Udaleko laugarren agintaldian Poloniara joateko proposamena egin zidaten eta hara joateko erabakia hartu eta gero, Joxerra Agirreurreta alkate izendatu genuen. Nik, ordea, zinegotzi kargua hartu nuen. Hortaz, laster hamabost urte egingo ditut udalean lanean.

**Alkate izateak eman dizun onena? Eta txarrena?**

Onak, asko. Horrelako herri txikietan herritarrekin hartu-eman zuzena dagoenez, arazoak oso azkar azaltzen dira eta konpontzeko errazagoak dira. Horrez gain, eraikin enblematiko hau –orain udaletxea dena– jaustear zen, eta berreraiki genuenean bat-batean izugarrizko bizi-poza sortu zen gatzagarron artean. Txarrenetarikoak, bat ez dakien saltsetan sartzen denean: esaterako, udalak babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar zituela-eta, promotore gisa hasi nintzen, baina asko sufritu nuen. Aurrerantzean ez naiz halako saltsatan sartuko.

**Zein gauza egitea egokitu zaizu?**

Nik hemen ikusi nuen gauza bat zera da: nekazaritzaren eta kaleko bizitzaren arteko oreka lortzea. Oreka hori bideratzeko, azkenengo urteetan plangintzak bideratzen jardun dugu: museo-plangintza, Jaki On moduko ekimenak, baserri eta mendien aldekoak.

**Lan kontuengatik Poloniara jo zenuen. Erabakia hartzerakoan, bizitzaz aldatzeko gogoa zeneukan?**

Berez, zaila da zergatia azaltzea. Oraindik ere ez dakit zergatik hartu nuen erabaki hura. Denetik apur bat. Udalean denbora luzea neraman alkate, eta bestalde, gauza berriak ikusteko gogoa ere baneukan. Horrez gain, barnean erronka txiki bat neukan: beste hizkuntza bat ikasi eta jende berria ezagutzea hain justu ere. Izugarrizko esperientzia da.

**Zein da zure eginbeharra Polonian?**

Hasiera baten, hangoei egungo tresna berritzaileak erabiltzen erakustera joan nintzen. Orain, berriz, fabrikazioko zuzendari izanik, erosketez zein zerbitzuez arduratzen naiz. Nire eta Fagorren asmoa da ahal den denbora laburrean hangoen eta hemengoen artean harreman estuena lortzea. Fagorrek Euskal Herrian dituen planta antzeko bat eraikiko luke, autonomoa, informazioa zentralizatzeko. Nik zenbait pertsona hezi beharko ditut, aurrerantzean eurek plantaren ardurak har ditzaten.

**Planta hori dagoeneko abian da?**

Bai, planta hori Wroclaw herrian dago eta Fagor bera baino zaharragoa da. 1946an, estatu-enpresa moduan hasi zen. Gerora, 1999an, pribatu bihurtzea erabaki zuten eta Fagor sartu zen. Sukaldeak egiten espezializatuta daude eta orain ikuzgailuak egitea pentsatzen ari dira. Badirudi hango merkatuan irteera izango luketeela. Hortik aurrera, beste ekimen batzuk ere bultzatu dira.

**Noiz bukatuko da zure eginbeharra?**

2000tik nago han, eta teorikoki, 2003an bukatuko dut. Orduan ikusiko dugu. Tartean, hango hizkuntza ikasten dihardut eta erabakiko dut han beste zerbait aurkitu edo ez. Hainbat gauzaren artean, politikan ez, baina elkarteren baten gustura ibiliko nintzateke Polonian.

**Euskal Herrira sarritan etortzen zara, eta Leintz Gatzagako udalean ere zinegotzi zara...**

Bai, ia hamabostean behin Euskal Herrira etortzen naiz, jendearekin elkartu, bailarako kontuez jabetu eta txikito batzuk hartzeko. Udalari dagokionez, alkate nintzenean lau urterako plan estrategikoak definitzen ibili ginen, eta oraindik, Polonian egonda ere, plangintzetako ekimen batzuk lantzen dihardut, esaterako, Jaki On enpresaren plangintzak zehazten. Herri txikietan gauzak polikiago egiten ditugu. Egunen baten gatza ekoiztea ez dugu baztertu... horrelako lanak egiten ditut zinegotzi moduan, Poloniatik egin ditzakedan gestioen bidez. Eguneroko kontuekin eta beste batzuekin Joxerra Agirreurretak burubelarri dihardu.



ANDER GILLENEA

# *Eugenio Otsoa*

LEINTZ GATZAGAKO ALKATE OHIA

# "Poloniara joatea sekulako esperientzia izan da: beste hizkuntza bat ikastea..."

HAUTESKUNDEAK

**"Lizarra-Garazi osatu zutenek aztertu beharko lukete zeintzuk diren euren desberdintasun eta antzekotasunak, eta itun hori berpiztu"**

EUSKARA POLONIAN

**"Postdamen 90 bat poloniarrek euskara ikasten dihardute, Bizkaiko Diputazioaren ekimen baten bitartez"**

**Herrimina izango duzu, ezta?**

Bai, handia. Ni nahiko herrikoia naiz. Gaztetan Mondragoen bizi izan nintzen. Lore Gazteak dantza taldean ere aritu nintzen. Gerora, Leintz Gatzagara gerturatzean, hango proiektuetan buru-belarri sartu nintzen, eta ordutik hona, amari bisita egitera bakarrik joaten naiz Mondragoera.

**Zelan bizi izan dituzu EAEko hauteskundeen emaitzak urrunetik, Poloniatik?**

Oro har, positiboak deritzet. Lizarra-Garazik irabazi du. Boto emaileek heldutasun demokratikoa erakutsi dute. Abertzale garrak bizirik dirau. PPk eta PSOEk argi ikusi behar dute oposizio serioa dutela eta independentzia aldarrikatzen dutenek indarra dutela. Orain, Lizarra-Garazi osatu zutenek aztertu beharko lukete zeintzuk diren euren desberdintasun eta antzekotasunak, eta itun hori berpiztu.

**Zelan ikusten dituzu Gatzagako plan estrategikoak?**

Ondo oinarrituta daude, herriaren potentzialtasuna aztertu delako. Erronka handiena, ez bakarrik Gatzagan, herri txikietan, espekulazioari aurre egitea da. Geroago eta zailagoa da lurzoru bat edo baserri bat hartzea. Jendeak uste du baserria asteburuetarako bakarrik dela. Ondorioz, azkenaldian abeltzain elkarteei laguntzen, kooperatiba edo elkarteak sortzen, txabolak prestatzen... dihardugu. Horrekin batera, industria txiki batzuk ere bideratzen gabiltza, industria baino, zerbitzu enpresak, nekazaritzako produktuen elaborazioa bideratzeko Jaki On eta antzekoak. Azken batean, lehen mailako jarduerei bultzada. Bestalde, daukagun garraio ereduarekin alderatuz, onura handia ekarriko luke azkenaldian entzuten den tranbia hori egingo balitz, bai Gatzagarako baita auzune konkretuetarako, esaterako, Marin eta antzekoendako.

**Polonian Euskal Herriko eta Gatzagako "enbaxadore" zarela esan ohi da...**

Bueno... Hemengo kontuak azaltzen aritzen naiz. Euskaldun askoren moduan, Espainiakoa baino euskalduna naizela esaten dut. Hortik aurrera, eztabaida pizten da. Zergatik? Egia esan, abertzaletasunez apur bat josita nago eta nahiko garbi hitz egiten dut gai horretaz. Bitxikeriak ere badaude: Postdamen 90 bat poloniarrek euskara ikasten dihardute, Bizkaiko Diputazioaren ekimen baten bitartez. Eurekin harremanetan jartzen saiatzen ari naiz. Hortaz, batzuetan eurek jartzen dute interesa.

**Zer moduz poloniarrekin?**

Izatez, hizkuntza bera oso muga handia da, eta seguruenik hango hizkuntza ondo jakinda hartu-emana sendotu egingo genuke. Urtebete daramat eta oraindik gauza serioak ez ditutzte ulertzen, baina tira!

**Eta zer-nolako egoera ekonomikoa bizi dute poloniarrek?**

Egoera ekonomikoaren adierazleak hartuz gero, 50 milioi biztanle dituen herrialde baten 400 edo 500 mila etxebizitza eraiki beharko lirateke urtean, baina ez dituzte 90.000 etxebizitza ere egiten. Inflazioa 7,5 inguruan da. Etxebizitza berria erosteko, banku-kreditua %16 inguruan da. Bestalde, kanpoko kapitala sartzen ari da, eta Poloniako txanponak 44 pezeta inguru balio duenez, hango produktuak esportatzeko zailtasunak ditutzte. Dena dela, aurrerapausoak egiten dihardute; euren iparra Europako Batasuna da.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 18a

# Eroski eta Once elkarrekin

## Txirrindulari taldeak Eroskiren laguntza izango du datozen lau urteetan

Eroski taldeak eta ONCE erakundeak hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, Eroskik txirrindulari taldea babestuko du datozen lau urteetan. Jose Maria Arroyo ONCEko presidenteak eta Costan Dacosta Eroskiko presidenteak sinatu zuten akordioa joan zen eguenean Madrilen. Kooperatibaren izena txirrindularien mailotean azaltzen da joan zen astebukaeratik, eta taldeak ONCE-Eroski izena izango du aurrerantzean. Estreinua ezinhobea izan da: Abraham Olano taldeko izarretako batek garaipena lortu zuen maillot berriarekin domekan jokatutako Alcobendaseko Klasikoan.



Joan zen astean Eroski-Once taldearen maillot berria aurkeztu zuten prentsaurrekoan.

Kopuruak ez dituzten arren, badirudi Eroskik 1.600 milioi ordainduko dituela datozen lau urteetan, 400 miloi urteko hain zuzen ere. Eroski baino lehen Deustsche Bank banketxe alemana izan zen ONCE taldeko babeslea, baina joan zen urteko abenduan bukatu zen bien arteko elkarlana.

Eroskiko iturrien arabera, ONCE eta Eroskiren arteko harremana aspaldikoa da eta hori izan da taldea babesteko arrazoi nagusietako bat. Iosu Sanz Eroskiko komunikazio arduradunak azaldu digunez, "orain dela hamar bat urtetik ari gara ONCEkoekin harremanetan, eta orain pare bat hilabete elbarrituak Eroskin lan egiteko hitzarmen bat ere sinatu genuen beraiekin. Ekonomia sozialaren barruan ari gara lanean bi taldeok eta Deustsche Bankekin zuten akordioa bukatu zenean, txirrindulari taldea babesteko eskaintza egin ziguten, eta bi aldiz pentsatu gabe baietza eman genien. Biontzat akordio interesgarria izango dela uste dugu".

Aurretik hainbat eskaera izan duen arren, lehenbiziko aldiz murgilduko da Eroski kirol profesionalean. Txirrindularitza Eroski ezagun egiteko bide egokia izan daitekeela uste du Sanzek: "talde-kirola izatean gure filosofiarekin bat dator, eta Eroskik Estatu osoan presentzia duela kontuan izanik eskaparate ona izan daiteke, txirrindularitzak komunikabideetan duen oihartzunagatik.

### TALDE EZAGUNA

Zalantzarik gabe, ONCE-Eroski txirrindulari taldea tropeleko indartsuenetakoa da. Aurtengo denboraldian Estatuko zein atzerriko probarik garrantzitsuenetan izango dira, tartean hiru itzuli handietan (Giroa, Tourra eta Espainiako Itzulia). Abraham Olano, Joseba Beloki eta Igor Gonzalez de Galdeano euskaldunak ditugu taldeko izar nagusiak. Manolo Saizek zuzentzen duen taldeak maila ona erakutsi du errepideetan azken denboraldietan, garaipen garrantzitsuak lortuz. Taldearen aurtengo aurrekontua 1.000 milioi pezeta ingurukoa da.

# Lehen semifinalistak Bergara Hirian

## Txapelketak Euskal Herriko gazte mailako bikoterik onenetakoak bildu ditu

Bergara Hiria pilota txapelketak aurrera darrai eta dagoeneko lehenbiziko semifinalistak ditugu: promes mailan Zabala-Oteiza eta Moran-Gurrutxaga bikoteak eta seniorretan Mikel-Casado eta Muguruza-Peñagarikano. Martitzenean, Moranek eta Gurrutxagak Mazkiarani eta Lagosi erraz irabazi zieten (22-3) eta, seniorretan, Ander Muguruza bergarararrak, Peñagarikano azpeitiarrarekin, Ubera II.a elgetarra eta Soraluzeko Laskurain gainditu zituen (22-12).



Gurrutxagak eta Moranek erraz gainditu zuten final laurdenetako kanporaketa.

Hurrengo kanporaketak maiatzaren 22an eta 29an jokatuko dituzte, 19:30ean. Seniorretan, Aretxabaletako Errasti anaiek martitzenean, hilak 22, jokatuko dute, Larraia-Navarro nafarren aurka. Egun berean, promes mailan, Joseba Herran bergarararrak eta Mendizabal zaldibiarrak Vicente-Torres arabarren aurka neurtuko dituzte indarrak. Igor Gutierrez bergararraren txanda maiatzaren 29an iritsiko da: Castellanos donostiarrarekin batera, Irigoien-Zabalo nafarren aurka jokatuko du. Finalerdiak ekainaren 12an eta 19an jokatuko dituzte eta finalak, berriz, ekainaren 26an.

Bergara Kirol Elkarteko pilota sailak antolatuta, txapelketak milioi eta erdi pezetako aurrekontua dauka. Antolatzaileek promes zein senior mailan ari diren Euskal Herriko bikoterik onenak bildu nahi izan dituzte. Luis Mari Gutierrez pilota saileko arduradunaren hitzetan, "maila handiko pilotarien partaidetza lortu dugula uste dugu eta txapelketa interesgarria izan daiteke aurtengoa ere. Urtetik urtera txapelketak prestigioa hartu du eta horri eutsi nahi diogu, mailahonetako txapelketa gutxi baitira Euskal Herrian". Aurtengoa txapelketaren seigarren aldia da.

Joan zen urteko edizioan Amarika-Zapirain (promes mailan) eta Mikel-Albizuri (seniorretan) izan ziren txapeldunak.

## Kirolabur

### ZIKLISMOA/ARRASATE

Jabier Otxoa txirrindulari bizkaitarra Arrasateko Aita Menni ospitalean ingresatu zuten joan zen eguenean, maiatzak 10. Bertan fisikoki zein psikologikoki errekuperatzeko tratamendua jasoko du datozen hilabeteetan. Gogoratuko duzuenez, Jabier Otxoak istripu larria izan zuen Malagan, Ricardo bere anaia bikiarekin entrenatzen ari zela. Ricardo hil egin zen istripuan.

### DEBAGOIENA/KARNETA

Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko udal kirol zerbitzuak akordio batera heldu dira, maiatzean eta ekainean, herri bakoitzeko kirol zerbitzuko bazkideek, gainerako beste herrietako kirol instalazioak erabili ahal izateko. Etorkizunean bailara osoan baliagarria izango litzatekeen bazkide txartelaren bideragarritasuna aztertu nahi dute.

### DEBAGOIENA/EDADETUAK

Datorren egubakoitzean, hilak 25, Debagoieneko edadetuentzako X. kirol jaia ospatuko dute Bergarako Labegaraieta kiroldegian, 15:00etan. Kirol ekintzen ondoren, opari banaketa egingo dute eta ondoren luntxa eta dantzaldia izango dira. Antolatzaileek autobusak jarriko dituzte Bergararaino. Argibideak udaletako kirol zerbitzuetan.

### ZIKLISMOA/ULMA

Ulma-Cegasa taldeko Alberto Sanchez txirrindulari mexikarrak Abadiñoko proba irabazi zuen zapatuan. Sanchez ihes egin da heldu zen helmugara eta 40 segundoko aldea atera zion zortzi txirrindularik osatutako taldeari. Ulma-Cegasak aurten lortu duen lehen garaipena da.

### ZIKLISMOA/ODRIOZOLA

Jon Odriozola Banesto taldeko txirrindulari oñatiarra Italiako Giroko irteeran izango da zapatuan. Hasiera batean Tourrean eta Espainiako Itzulian egotekoa bazen ere, aldaketak izan dira bere programan, taldeko hainbat kideren lesioak direla eta. Beraz, Tourraren aurretik Giroan hartuko du parte. Alcobendaseko Klasikoko erlojuz kontrako proban 13. sailkatu zen Odriozola domekan.

### MENDIA/ARETXABALETA

Datorren eguaztenean, maiatzak 23, Felix Iñurrategi mendi eskolaren aurkezpena egingo da Aretxabaletako Murrukixo elkartean, 19:30ean. Baltistango Machulu herriko mendi eskola Felix Iñurrategi izenez birbataiatu dute.

*Podiuma*

# Ritxar Fernandez |KORRIKALARIA|

**Ritxar Fernandez oñatiarra (31 urte) hirugarren postuan sailkatu zen zapatuan jokatutako Arrasate-Oñati lasterketan, Asier Cuevas eibartarra eta Aitor Uribesalgo iurretarraren atzetik. Cuevasek hirugarren aldiz irabazi zuen proba, 36 minutu eta 30 segundoko denborarekin. Fernandezek, berriz, 37 minutu eta 15 segundo behar izan zituen ibilbidea (11,4 km.) betetzeko. Partaidetza handia (194 korrikalari) eta beroa izan ziren zapatuko protagonista nagusiak.**



Fernandez Debagoienko lehena izan zen Arrasate-Oñati proban.

**Pozik lortutako emaitzarekin?**

Bai, ia lau hilabate eman ditut lesionatuta eta banekien irabaztea zaila izango zela, jende ona zegoelako tartean: Asier Cuevas maratoi erdiko Euskadiko txapelduna da eta Aitor Uribesalgo hirugarren sailkatu zen Euskadiko kros txapelketan aurten. Lasterketa aurreko egunetan entrenamendu onak egin nituen eta neure burua ondo ikusten nuen. Zapatuan, hala ere, bero handia egin zuen eta San Prudentziotik Oñatira bitarteko tartea uste baino gogorragoa egin zitzaidan, nahiko sufritu nuen. Beroa, dena den, denok jasan behar izan genuen eta hirugarren postua ontzat ematen dut.

**Urtero aurreneko postuetan izan arren, irabaztea ezinezkoa gertatu zaizu orain arte.**

Oso nekeza da horrelako lasterketa bat irabaztea. Nik uste aurretik pistan 1.500 edo 5.000 metroko distantzian ibilitakoek dutela aukera gehien, taktikoki hobeak direlako. Niri hori falta zait; oso karrera gutxi irabazten ditut eta normalean erritmo gogorra ezarri eta bakarrik geratzea lortu izan dudanetan lortu ditut garaipenak.

**Abendutik lesionatuta egon zarela diozu. Noiz izango zaitugu sasoirik onenean aurten?**

Ekaina eta uztailerako ondo egotea espero dut. Neguan ez dut entrenatu eta nahi baino kilometro gutxiago dauzkat hanketan baina pixkanaka-pixkanaka banabil forma hartzen. Domekan maratoi erdia korrituko dut Donostian eta ordubete eta sei minutuko denbora egitea gustatuko litzaidake. Ea haizerik ez duen jotzen eta marka on bat egiteko aukera daukadan. Nire helburua ekainaren azkenetan Tenerifen jokatuko den Espainiako maratoi erdiko txapelketan egotea da. Joan zen urtean 32. postuan sailkatu nintzen eta aurten postu hori hobetzeko asmoarekin noa.

**"Zapatuan bero handia egin zuen eta San Prudentziotik Oñatira bitarteko tartea uste baino gogorragoa egin zitzaidan"**

**"8-20 km bitarteko distantzietan ibiltzen naiz ondoen, eta ilusioa eta gogoa daukat maratoiarekin serio probatzeko"**

**Zein distantziatan ibiltzen zara gusturago?**

Errepidean, asfaltoan, korritzea gustatzen zait gehien eta 8 kilometro eta maratoi erdiaren bitarteko distantzietan moldatzen naiz ondoen. Orain dela lau urte hasi nintzen atletismoa serioago hartzen eta joan zen urtean lortu nituen emaitzarik onenak: Behobia-Donostia eta Azpeitia-Azkoitia probetan aurrean egon nintzen, eta Euskadiko maratoi erdiko txapelketan bigarren sailkatu nintzen. Lesionatu aurretik, azaroan, Donostiako maratoi erdia irabazi nuen.

**Maratoiarekin probatzeko asmorik bai?**

Joan zen urtean probatu nuen, Donostian, eta 30. kilometroan erretiratu nintzen. Ordura arte kilometro bakoitzeko hiru minutu eta 20 segunduko media neraman eta horrela jarraituz gero 2 ordu eta 20 minutuko marka egiteko aukera neukan. Baina ez nengoen behar bezala prestatuta eta 30. kilometrotik aurrera buruak ere zeresan handia dauka. Ilusioa eta gogoa dut maratoiarekin probatzeko berriz.

**Astean zenbat kilometro egiten dituzu?**

Astero 150 kilometro. Denbora libre gehiago dudanean goiz eta arratsaldez entrenatzen naiz.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Paco Martinez
## Pilotaria


Martinezek hasieran aurrelari eta gero *zagero* jokatu zuen.

**Nafarroako lehen pilotari profesionala**

**22 urte eman zituen profesionaletan**

**Bere azken urtean 94 partidu jokatu zituen**

Paco Martinez Iparragirre 14 urterekin jantzi zen lehenbiziko aldiz txuriz, bere jaioterriko jaietan: "mutikotan denok ibiltzen ginen pilotan, Elizako paretan, edo portikoan bestela. Frontoia beranduago egin zuten". Hamazazpi urte zituela, Mendozarekin batera, 2. mailako afizionatuen Nafarroako txapelketa irabazi zuen, Iruñeako Euskal Jai pilotalekuan, eta handik urtebetera afizionatuen lehen mailako txapelketan hartu zuen parte, Lodosako Esparzarekin bikotea osatuz. Hala ere, txapelketa eskuratzeko aukera handiak zituztenean, txapelketa bertan behera geratu zen hainbat pilotarik afizionatuetan dirua kobratu zutelako. Paco Martinez lehen nafar pilotari profesionala izan zen, 1952. urtean Empresas Unidasekin kontratua sinatu ondoren. Oñatin egin zuen debuta eta Mondragonesekin batera, Larrañaga III.ari eta Ugarteri 22-14 irabazi zien. Pacok gogoratzen duenez, "lehen afizio handia zegoen. Domeketan Bergarako pilotalekua goizeko 8etan zabaltzen zen eta pilotan egiteko txanda eskatu beharra zegoen". Martinezek 22 urte eman zituen profesionaletan, 2. mailan batez ere, 41 urterekin erretiratu zen arte. Bere azkenengo urtean 94 partidu jokatu zituen baina mokorrean izandako lesio batek kantxetatik urrundu zuen. 1978an omenaldia egin zioten Bergaran. Hasieran aurrean jokatzen bazuen, azkenerako *zagero* aritzen zen; "besoko kolpe ona nuen eta txokora nahiko ondo mozten nuen. Oraingo materialarekin gaurko *zageroek* erosoago jokatzen dute".

Frontoietara gero eta gutxiago joaten dela dio, ikuskizunak behera egin duelako. Hala ere, Titin eta Unanue gustukoak ditu. Banakako txapelketan, berriz, Eugik irabaziko duela uste du./ E. M.

***"Oraingo materialarekin gaurko zageroek gure sasoian baino erosoago jokatzen dute. Hala ere, ikuskizunak behera egin du"***


Paco Martinez • Ziordia • 1933



# Nire Pronostikoa

MIKEL LARRAÑAGA "MAKI" / Eibar B futbol taldeko jokalaria

Gustatuko litzaidake Abel Barriola eskuz banakako finalera heltzea baina ez dut uste Beloki gainditzeko gauza izango denik. Finalean, bestalde, Eugi da nire faboritoa. Futbolean, Reala Malagari irabazi beharrean dago eta zapatuan etxetik kanpo hiru gol egin bazituen, Anoetan ez luke arazorik izan behar. Alavesek partidu zaila izango du Bartzelonaren aurka eta UEFAko finalaren ostean ligan kontzentratzea ez da lan makala. Bartzelonak gainera puntuen beharra dauka. Athletic, berriz, oso erlaxatuta ikusten dut eta Valentzian galtzea normala litzateke.

**Oraingo astebukaerako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Beloki | 22 | Barriola | 18 |
| B/ | Reala | 3 | Malaga | 0 |
| C/ | Alaves | 1 | Bartzelona | 2 |
| D/ | Valentzia | 2 | Athletic | 1 |

Mila esker Debagoiena,
hauteskundeen gaineko
zenbaki bereziari
eskainitako arretagatik!

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA



# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 18n

Kultura eta Aisialdia

**Maiatzaren 18tik 25era**


# Multizinemak bor-bor

## Jabi Etxagibel zinema kudeatzailea

Aretoaren diseinua kalitaterik handienekoa, ekualizadoreak, soinu bandaren fidagarritasuna lortzeko, Dolvi sistem srdx sistema, Subgrabehendako aparailu bereziak, aire egokitu ixila, ohiartzun eza, butakak... Zinea matruskak izango bailiran dago osatua, hau da, hiru zapata kaxa bata bestearen barruan eta tartean aire kamarak.

Hau guztia, Jabi Etxagibelek esan digun moduan helburu batekin: "Gure erronka nagusia pelikula produzitu duen zuzendariak lortu duen produktua kalitate onenarekin ematea da. Gainontzeko anplifikagailu, laser, etab.-ak helburua betetzeko bideak baino ez dira" /14



GOIO ARANA / ARGAZKIA: IBAN ARANTZABAL

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 18a

Zinema | Multizinemen eskaintza

# Jabi Etxagibel, multizinemen kudeatzailea

"KUDEATZEN DITUGUN ARETOAK FILMAK EMATEKO BAINO GEHIAGO DIRA, KULTURA KUDEATZEN DUGU"

**Jabi Etxagibel arrasatearrak Arrasate eta Gasteiz artean ematen ditu eguneko orduak. Bizi ere hanka bat han eta bestea hemen bizi ei da. Guridi, Sanmaniego eta Florida kudeatzen dituen enpresan gerente da duela zazpi urtetik hona, eta oraingo erronka zabaldu berri dituzten Florida zinemak dira, bederatzi aretoko zinemak. Gasteizko nazioarteko zinema jardunaldiak antolatzen jardun arren, minutu batzuk eskaini dizkigu. Zein pelikula duen gustuko galdetzen harrera egin eta berak beste galdera batekin erantzun digu.**



Jabi Etxagibelek zazpi urte daramatza kudeatze lanetan. Montxo Armendarizen Silencio roto filma oso ona dela esan digu.

IBAN ARANTZABAL

**Zein film duzu gustoko?**

Eta zuk, txuleta edo merengea nahiago? Ez dauka zentzurik, batzuetan merengea jateko ordua da eta bestetan txuleta eder batek betetzen zaitu. Produktuak mila dira eta filmen erakustaile tristeok egindako guztiari ematen diogu zabalkundea.

**Zer eskaintzen dute zuen aretoek bestelakoek ez dutena?**

300 film inguru ematen ditugu urtean, ahal ditugun guztiak. Hamalau areto ditugu eta oraintxe bertan 17 film ditugu karteldegian. Ordiziako merkatuarekin konparatzen ditut gure "multi"ak. Ordizian ez dira salduko Euskal Herrian saltzen diren berdura guztiak, hala ere, prezioa Ordiziakoek markatzen dute. Hortik aurrera garestia edo merkea izango da produktua, edo gure kasuan filma.

**Aurrekontu handiko filmak ikusiko dira gehien...**

Ez pentsa, ikusleari bost axola dio zenbat diru gastatu den filma egiten. Sentsazioak jasotzen ditu ikusleak eta eskertu ere horixe eskertzen du. Guk jakin behar dugu sentsazio horiek behar bezala eta filmeko zuzendariak egin duenaren arabera ematen. *Full Monty*, esaterako, 400 milioi inguru kostatu zen eta izugarrizko jendetzak ikusi zuen. Jendeak geroago eta ikusentzunezko produktu gehiago ikusten ditu: internet, DVD, telebista, bideoa... dena dela, lehenengo leihoa zinema da, prezioa ezartzen duena. Gure erantzukizuna horixe da, produktu hori ahalik eta txukunen merkaturatzea bai soinuari, bai irudiei, bai erosotasunari eta kalitatean eragina duten beste hainbat faktoreri begira.

**Gasteizko elkarteekin lankidetzan hainbat film eman dituzue.**

Bai, jakina. Gu abilak gara kalitate teknikoa ematen, hala ere, gure konfiantzako jendearekin inguratuta hobeto egiten dugu lan. Elkarteek ere guregan konfiantza izatea gura dugu. Film laburren jaialdia, Mugarik Gabe moduko gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetza, Gasteizko emakumeen asanblearekin, homosexual taldeekin... Kontzeptu edo politika balorazioetan ez gara sartzen. Zinemarekin harremana badute, kalitatea eskainiz laguntzen diegu.

**Bestelako ekintzak ere egiten dira zinema aretoetan, esaterako, aurten, hauteskundeetako mitinak.**

Bai, leku zabala eratu dugu Florida zinemetan. Aretoa Gasteiz barruan integratua dago, eta Vesa deitzen den aretoan umeendako hiru txotxongilo-ikuskizun eman ditugu hilabete eta erdian. Umoristak, kabaretak... Zinema baino askoz ere gehiago, oro har, kultura eskaini gura dugu. 80 laguneko areto bat ere egin dugu zinema-forumak egiteko. Zinema-forumak, baina *feec-back* eran, hartu-emana landuz. Horretarako, gura beste material dago: bideoak, arbelak... Urrian, txotxongilo ikastaroak emango ditugu han bertan.

**Euskarak zein leku du Florida zinemetan?**

Egunero dago emanaldiren bat, baina gustatuko litzaiguke euskaraz egindako material gehiago ematea, dena dela, dagoena ere ez da asko eta... Goizero emanaldi bat, gutxienez, ematen dugu euskaraz.

**Plana eginda ematen zaio ikusleari zuen zinematan. Filma, krispetak, edatekoa, afaltzeko lekua...**

Jendea entretenitzea dugu helburu eta entretenitze horren barruan bestelako ekintzak ere sartzen dira. Guk ahalik eta jende gehien lortzea dugu helburu eta gainerakoak kultura-balio gehigarri baino ez dira. Gure zinemak ondo pasatzeko diseinatuta daude.

**Zein izan da ikusle gehien izan duen filma?**

*Torrente* jende askok ikusi du. *Torrente* Espainian egina da, Espainiako hiriburuarekin... Espainia, Euskal Herria edo Europako produktuak bultzatu beharra dago. Yankiak behar ditugu onak ere badirelako, baina... Multinazionaletatik haratago ere badago zinema ona.

***Torrente* askok ikusi dute, baina zenbat da "asko"?**

22.000 ikusletik gora gure aretoetan. Gurekin lehian daudenek ere badute film hori... Hortaz, 30.000 inguru izango dira. Kalkulua eginez. Gasteiztarren artean, zazpitik bate- edo, eta kontuan hartu barik asko ezinduak direla eta abar.

**Debagoienetik jende asko hurbiltzen da Gasteizera. Horrek bailararako zinema aretoetan eragingo du?**

Debagoienetik, urtean 80.000 ikus-entzule inguru etorriko dira, gure bezeroen %10 gutxi gorabehera, Gasteizko zinemetan ia 900.000 ikusle izaten dira-eta. Debagoieneko zinema aretoei dagokienez, nork bere metodoak ditu merkatua egiteko, eta errespetatzen ditugu Arrasaten edo Bergaran izan ditzaketenak. Horrek ez du esan gura gu ga- dela arrazoiaren aldean.

**Film bat?**

Zaila da, baina orain bertan, Montxo Armendarizen filma barrurai- sartzen da, gu gerraren galtzaile- gara-eta. Montxo hemengoa da, fi- mak hemengo kontuak islatzen di- sentimenduen gainean berba egite- du, esperantzak, etsipenak... Gure herria halakoxea da. Betiko film bat: *Cowboy de medianoche*.

"Debagoienetik urtean 80.000 ikus-entzule inguru etorriko dira, gure bezeroen %10 gutxi gora behera"

"300 pelikula inguru ematen ditugu urtean, ahal ditugun guztiak. 14 areto ditugu eta asteon 17 pelikula ditugu karteleran"

IBAN ARANTZABAL

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 18a

# Maiatza: 18-25

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**BERGARA**

> **Taun-Taun** taldearen *Kontarte* antzezlana zapatuan, hilak 19, Zabalotegiko aretoan, 20:00etan.

**ESKORIATZA**

> ***Yo los mate*** antzezlana Belladona taldearekin egubakoitzean, hilak 18, Jose Arana ikastolan, 22:30ean.

## Musika

**ARRASATE**

> **Asgarth** eta gonbidatutako beste talde bat zapatuan, hilak 19, Gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA**

> **Arab Strab** eta **Bright Eyes** datorren domekan, maiatzak 27, Jam aretoan.

**OÑATI**

> **Donostiako Udal Txistulari Taldea** taldea domekan, hilak 20, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

**SORALUZE**

> **Joseba Irazoki** Berako gitarrajotzailearen laukotea egubakoitzean, hilak 18, Gaztelupe tabernan, 23:00etan.

> **Mikel Artieda** hirukotea eguenean, hilak 24, Gaztelupen, 22:00etan.

**ELORRIO**

> **Txuma Murugarren** egubakoitzean, hilak 18, Ateneoan, 23:00etan.

## Erakusketak

**ARRASATE**

> **Jose Ramon Guerra**ren margoak Toki Eder kafetegian.

> **Monterrongo** pintura ikastoroko ikasleen lanak Harresi aretoan.

**BERGARA**

> **IV. Abdon Juaristi** pintura lehiaketako lanak Kultura Etxean ikusgai maiatzaren 27ra arte.

> **Nacho De Vicente** aramaioarraren margo erakusketa Nahikari tabernan.

**OÑATI**

> **Argazki erakusketa** Gaztelekuan maiatzaren 26ra arte.

## Lehiaketak

**ANTZUOLA**

> **Kartel lehiaketa.** Antzuolako jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. Lanak aurkezteko epea ekainaren 1era arte izango da zabalik. Saria 25.000 pezetakoa izango da. Argibideak 943 76 62 46 zenbakian.

**ARRASATE**

> **Kartel lehiaketa,** San Juan jaietara begira. Lehiaketa honetan Arrasaten bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Kartelen neurriak 50x70 zentimetrokoak izango dira. Formatoak, nahitaez bertikala izan beharko du. Euskarri informatikoan (disketean) ere aurkeztu ahal izango da kartela, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta. Teknika librea izango da. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: *2001 San Juan Jaiak Arrasate*. Irabazleak 125.000 pezetako saria jasoko du. Kartelak aurkezteko epea maiatzaren 25ean bukatuko da. Argibide gehiago udaleko Kultura sailean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa,** Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezetakoa da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

**BERGARA**

> **Bergara Hiria argazki lehiaketa** Euskal Herriko argazki zaletuei zuzenduta. Zuribeltzeko edo koloretako argazkiak aurkez daitezke (mota bakoitzeko lau gehienez). Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22an bukatuko da. Sari banaketa ekainaren 8an egingo da. Irabazleak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu, eta beste hainbat sari ere egongo dira. Argibideak: 943 76 30 90.

**OÑATI**

> **I. Argazki Lehiaketa:** *Oñati, mendia eta natura.* Aloña-Mendi Mendi Sailak argazkigintza eta naturaren aldeko zaletasuna bultzatzeko I. Argazki Lehiaketa deitu du. Adinaren arabera, bi maila bereiztuko dira: 18 urtetik beherakoak eta 18 urtetik gorakoak. Argazkietan Oñatiko paisaiak jaso beharko dira. Lanak zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahal izango dira eta pertsona batek, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31n bukatuko da. Maila bakoitzean hiru onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 943 71 60 57 edo 943 78 08 10 telefono zenbakietan.

**DONOSTIA**

> **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako kartel lehiaketa.** Kartelaren esaldia: *Hitza informazioaren gizartean.* Edozein estilo eta teknika erabiliz eginiko lan guztiak onartuko dira. Kartelaren formatua 50x70 cm-koa izango da. Irabazleak 250.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 25ean bukatuko da. Argibideak 943 21 77 98 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

**ARRASATE**

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

> **Geriatria erizaintzako laguntzaile ikastaroa** maiatzaren 21etik uztailaren 23ra. Langabezian dauden pertsonei eta INEMen izena emana dutenei zuzenduta. 200 orduko ikastaroa izango da eta astean lau egunean izango dira eskolak. Izena ematea eta argibideak Debagoieneko INEMeko bulegoan (943 77 16 99) edo Instituto Comunitario de la Tercera Edad (ICTE) delakoan (943 77 17 15 telefonoa).

**ARETXABALETA**

> **Luzaketa laguntze ikastaroa** maiatzaren 29tik ekainaren 28ra arte, martitzen eta eguenetan, 20:30ean. Argibideak eta izena ematea: 616 96 57 95.

> **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

## Deiak

**ARETXABALETA**

> **Omenaldia.** Pako Iriondo Euskal Mendi Federazioko presidente ohiari omenaldia eskainiko diote ekainaren 3an. Bazkarirako txartelak (4.000 pezeta) Debagoieneko mendizale elkarteetan edo Euskadiko Kutxan maiatzaren 25era arte.

> **Hitzaldia.** Hamazazpi urtetan munduan zehar ibili den Hondarribiko familia batek bere esperientziak azalduko ditu eguenean, hilak 24, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi euskara elkarteak antolatuta.

**ARRASATE**

> **Lourdesera erromesaldia.** Arrasateko Osasun Pastoralak maiatzaren 26an autobusak antolatu ditu, Lourdesera joan-etorria egiteko. Irteera goizeko 6etan izango da Garibaiko autobus geltokitik, eta Lourdesetik itzulera gaueko 22:30ean, zuzien prozesioaren ostean. Izena ematea Halcon bidai agentzian. Autobus txartelak 2.600 pezetan salduko dituzte.

**BERGARA**

> **Kafe tertulia:** *Zer da autogestioa?* Domekan, hilak 20, Gaztetxean, 19:30ean.

> **Irteera.** San Joxepe erretiratuen elkarteak maiatzaren 23an Biasterira joateko irteera antolatu du. Izena ematea eta argibideak 943 76 21 40 telefono zenbakian.

**ESKORIATZA**

> **Ipuin kontaketa** umeentzako. Eguaztenean, maiatzak 23, Kultura Etxean, 18:00etan.

> **Mendi irteera** Aitzorrotzera datorren zapatuan, maiatzaren 26an. Aitzorrotzen bertan txistorra



ARGAZKI LEHIAKETA

### OÑATI, MENDIA ETA NATURA

Aloña-Mendi elkarteko mendi sailak *Oñati, mendia eta natura* izenburuko argazki lehiaketa deitu du, argazkigintza eta naturaren aldeko zaletasuna bultzatzeko asmoarekin. Argazkietan Oñatiko paisaiak jaso beharko dira. Lanak zuribeltzean zein koloretan atera daitezke eta argazkiak bidaltzeko epea maiatzaren 31n bukatuko da. Adinaren arabera bi talde bereiztuko dira eta maila bakoitzeko onenenentzat sariak egongo dira. Pertsona batek, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

• KARPAK •
AULKI
DONOSTIA - ARRIGORRIAGA
☎ 943 47 34 88
Eszenatokiak
Aulkiak
Serigrafia
Basoak
Bazkariak

## JAIOTAKOAK

**Ane Etxabe Isasmendi.** Aretxabaletan, apirilaren 4an.
**Ekain Eriz Oion.** Eskoriatzan, apirilaren 14an.
**Gurutz Gereta Etxegoien.** Oñatin, apirilaren 23an.
**Josune Jimenez Mugika.** Bergaran, apirilaren 25ean.
**Maider Oregi Gallardo.** Bergaran, apirilaren 26an.
**Ander Etxaniz Unanue.** Bergaran, apirilaren 27an.
**Oihana Laskurain Lauzirika.** Bergaran, apirilaren 28an.
**Jonay Lamadrid Perez.** Arrasaten, apirilaren 29an.
**Andoni Uriarte Muñoa.** Aramaion, apirilaren 30ean.
**Markel Caballero Berrocal.** Aretxabaletan, maiatzaren 2an.
**Haizea Zoro Gurrutxaga.** Eskoriatzan, maiatzaren 3an.
**Maider Gorosabel Azkarate.** Bergaran, maiatzaren 5ean.
**June Bolinaga San Migel.** Arrasaten, maiatzaren 5ean.
**Julene Rosado Garcia.** Aretxabaletan, maiatzaren 7an.
**Asier Leibar Garcia.** Arrasaten, maiatzaren 8an.
**Uxue Osinaga Arza.** Oñatin, maiatzaren 8an.
**Ainara Vazquez Cantero.** Aretxabaletan, maiatzaren 9an.
**Koldo zubia Salas.** Arrasaten, maiatzaren 9an.
**Andoni Narbaiza Moreno.** Arrasaten, maiatzaren 9an.
**Haizea Uzarraga Pineiro.** Arrasaten, maiatzaren 10ean.
**Unai Revuelta Lejardi.** Arrasaten, maiatzaren 10ean.
**Josu Sanchez Sanchez.** Arrasaten, maiatzaren 10ean.
**Alain Egia Velardier.** Arrasaten, maiatzaren 11n.
**Ibai Pie de Hierro Ezpeleta.** Arrasaten, maiatzaren 11n.
**Jokin Rayo Ignacio.** Eskoriatzan, maiatzaren 12an.
**Eneko Mateos Madinabeitia.** Aretxabaletan, maiatzaren 12an.

## HILDAKOAK

**Conrado Inza Askasibar**
Bergaran, maiatzaren 2an, 90 urte zituela.

**Benita Lete Arriola**
Bergaran, maiatzaren 2an, 78 urte zituela.

**Cipriano Muruamendiaraz Txintxurreta**
Bergaran, maiatzaren 3an, 80 urte zituela.

**Pablo Urkia Astola**
Aretxabaletan, maiatzaren 3an, 73 urte zituela.

**Maria Concepcion Murillo Triguero**
Antzuolan, maiatzaren 4an, 77 urte zituela.

**Francisco Juan Rivero**
Arrasaten, maiatzaren 5ean, 92 urte zituela.

**Julia Abarrategi Abarrategi**
Arrasaten, maiatzaren 7an, 86 urte zituela.

**Jesusa Idigoras Gisasola**
Antzuolan, maiatzaren 7an, 74 urte zituela.

**Justina Garcia Garrido**
Oñatin, maiatzaren 7an, 68 urte zituela.

**Antonio Perlado Martiu**
Arrasaten, maiatzaren 8an, 64 urte zituela.

**Virgilio Gabilondo Liziaga**
Oñatin, maiatzaren 10ean, 79 urte zituela.

**Francisco Zabal Urzelai**
Elgetan, maiatzaren 10ean, 97 urte zituela.

**Jesus Martinez Hernandez**
Aretxabaletan, maiatzaren 12an, 32 urte zituela.

**Justa Aiastui Ormazabal**
Oñatin, maiatzaren 12an, 100 urte zituela.

**Concepcion Moreno Pareja**
Arrasaten, maiatzaren 13an, 52 urte zituela.

**Moises Belategi Bengoa**
Bergaran, maiatzaren 14an, 79 urte zituela.

**Marcelina Arregi Gaztelurrutia**
Arrasaten, maiatzaren 15ean, 87 urte zituela.

**Maria Concepcion Ugalde Lizarralde**
Arrasaten, maiatzaren 15ean, 80 urte zituela.

**Patxi Elortza Igartua**
Oñatin, maiatzaren 15ean, 90 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Jabier Aranburu Urdanoz** eta **Cristina Revuelta Manso,** Bergaran, apirilaren 28an.

**Agustin Felix Iregi Igarza eta Elvira Ganboa Uriarte,** Gatzagan, apirilaren 28an.

**Julio Serdio De Aguiar** eta **Maria Concepcion Garcia Romero,** Arrasaten, apirilaren 28an.

**Jose antonio Rubio Marco** eta **Edurne Sanchez Bello,** Arrasaten, maiatzaren 5ean.

**Juan Luis Eraña Arana** eta **Itziar Epelde Osinalde,** Arrasaten, maiatzaren 5ean.

**Santiago Tena Leon** eta **Marisol Cabrera Acosta,** Antzuolan, maiatzaren 5ean.

**Jose Manuel Corbillon Prado** eta **Maria Paz Losada Fernandez,** Bergaran, maiatzaren 5ean.

**Koldobika Mikel Beraza Otxotorena** eta **Maite Oregi Labaien,** Bergaran, maiatzaren 5ean.

**Manuel Vila Cid** eta **Maria Jose Azpiazu Iruretagoiena,** Bergaran, maiatzaren 5ean.

**Jose Ignacio Vinagre Carrasco** eta **Luciana Ribeiro Costa,** Arrasaten, maiatzaren 12an.

**Lino Manel Fernandez Rivas** eta **Elena Fernandez Barba,** Arrasaten, maiatzaren 12an.

**Francisco Javier Lamarain Gordobil** eta **Francia Rosa Osoria Santo,** Arrasaten, maiatzaren 12an.

ARGAZKIAK: MIREN IBABE



**Andoni Uriarte Muñoa** eta **Ana** ama, aramaioarrak biak. Andoni apirilaren 30ean jaio zen, eta 3,820 kilo pisatu zuen. **Jon** da aita, mondragoetarra.



**Jonay Lamadrid Perez** eta ama **Isa,** mondragoetarrak biak. Apirilaren 29an jaio zen Jonay, eta 3,640 kilo pisatu zuen. **Maxi** da aita, mondragoetarra bera ere.



**Alaitz Egaña Azkargorta** eta amama **Eusebi,** oñatiarrak biak. Alaitz maiatzaren 1ean jaio zen, eta 3,460 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Ixiar** eta **Migel Mari** dira, oñatiarrak eurak ere.



**Julen Cabo Mendez** eta **Marian** ama, bergararrak biak. Julen maiatzaren 5ean jaio zen, eta 3,570 kilo pisatu zuen. **Luis** da aita, bergararra bera ere.



**Uxue Osinaga Arza** eta amama **Eli,** oñatiarrak biak. Uxue maiatzaren 8an jaio zen, eta 2,970 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Gurutze** eta **Mikel** dira, oñatiarrak biak.



**Asier Leibar Garcia** mondragoetarra eta amama **Lucia.** Asier maiatzaren 8an jaio zen, eta 3,360 kilo pisatu zuen. **Ana** eta **Xabi** dira gurasoak, Portugaletekoa ama, eta soraluzetarra aita.



**Mikel Aristu Kortazar** mondragoetarra gurasoekin. Mikel maiatzaren 13an jaio zen, eta 3,090 kilo pisatu zuen. **Arrate** eta **Jose Jabier** dira gurasoak, ama elorriotarra, eta aita iruñearra.



**Haizea Uzarraga Pineiro** eta **Alina** ama, mondragoetarrak biak. Maiatzaren 10ean jaio zen Haizea, eta 3,360 kilo pisatu zuen. **Antton** da aita, mondragoetarra bera ere.



**Jokin Rayo Ignacio** eta **Monse** ama, eskoriatzarrak biak. Maiatzaren 12an jaio zen Jokin, eta 3,030 kilo pisatu zuen. **Cayetano** da aita, mondragoetarra.

### URTEURRENA

# Gregoria Guridi Idigoras

Bigarren urteurreneko meza
domekan, maiatzak 20,
12:30ean,
**Arrasateko** Parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

# Angelita Arregi Iñurritegi

*Migel Arozenaren alarguna*

Oñatin hil zen 2000ko maiatzaren 15ean

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, maiatzak 26,
19:00ean,
**Oñatiko** San Migel parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Markel Caballero Berrocal** atxabaltarra eta amama **Pepi.** Markel maiatzaren 2an jaio zen, eta 2,810 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Marta** eta **Raul** dira, ama atxabaltarra eta aita mondragoetarra.



**Christian Rodriguez Fernandez** eskoriatzarra eta **Maria Amor** ama, gasteiztarra. Christian maiatzaren 1ean jaio zen, eta 2,400 kilo pisatu zuen. **Jose** da aita, Cordobakoa.



**Haizea Zoro Gurrutxaga** eskoriatzarra eta **Daniel** aita, Costa de Marfilekoa. Haizea maiatzaren 3an jaio zen, eta 2,900 kilo pisatu zuen. **Amaia** da ama, eskoriatzarra.



**Maider Gorosabel Azkarate** bergararra **Julen** anaiarekin eta Jolanda amarekin, mondragoetarra. Maider maiatzaren 5ean jaio zen, eta 3,500 kilo pisatu zuen. **Jose Ramon** da aita, bergararra.



**odoni Fernandez Fernandez** mondragoetarra eta **Pilar** ama, Ciudad Realekoa. odoni maiatzaren 10ean jaio zen, eta 790 kilo pisatu zuen. **Antonio** da aita, udad Realekoa bera ere.



**Alain Egia Velardiez** mondragoetarra eta **Bego** ama, elorriotarra. Alain maiatzaren 11n jaio zen, eta 3,730 kilo pisatu zuen. **Angel** da aita, mondragoetarra.



**Josu Sanchez Sanchez** eta **Asier** anaia, mondragoetarrak biak. Josu maiatzaren 10ean jaio zen, eta 3,030 kilo pisatu zuen. **Manoli** eta **Jabi** dira gurasoak, mondragoetarrak eurak ere.



**Unai Revuelta Lejardi** mondragoetarra amamarekin. Gurasoak **Maria** eta **Mikel** dira, markinarra ama eta mondragoetarra aita. Unai maiatzaren 10ean jaio zen, eta 3,240 kilo pisatu zuen.



**ikel Freire Bastardo** eta amama **adalupe**, oñatiarrak biak. Mikel maiatzaren 12an jaio zen, eta 3,010 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Migel Angel** eta **Jaione** dira, oñatiarrak biak.



**Igone Arana** bergararra eta **Jose Angel Arriaran** angiozartarra oraingo astebukaeran bertan ezkonduko dira. Non ezkonduko, eta Elgetan, nora joango, eta Angiozarrera. Zorionak, bikote, lagun guztien partez!



**one Agirregabiria arbidek** joan zen mekan egin zuen ere lehen jaunartzea skoriatzako San Pedro iza nagusian. Bere senide eta lagun guztiek zorionak opa nahi dizkiote.



**Matias Agirre** eta **Mercedes Lizundia** antzuolarrak ezkondu zirela 50 urte bete ziren maiatzaren 10ean. Antzuolako Antiguako elizan ezkondu ziren, eta Antigua-Errotako ganbaran egin zuten bazkaria euren senitartekoekin batera. Oraindik ezin izan duten arren ospatu, datorren hilean meza eta bazkari batekin ospatzeko asmoa dute. Zorionak, bada, bikote, eta ondo pasatu!



**Izaskun Larrañaga** eta **Joxe Manuel Larrañaga** bergararrek zilarrezko ezteiak ospatu dituzte. 1976ko uztailaren 24an ezkondu ziren arren, aurreratu egin dituzte ospakizunak, eta Lanzarotera joan dira urteurrena ospatzera. Euren senitartekoek bertso bat eskaini nahi izan diete:

*Iritsi da eguna/bikote laguna/ospatzeko elkarrekin/zuen urteurrena Hartzazue gaurkoan/besarkada bana/ta beste hainbeste urte/elkarrekin pasa.*

# Hitz gezidunak

Luma



Miatu · Gerizpea · Non atzizkia · Euskal lurraldea · Argazkiko herria · Fruitu mota · ... egin, goitik ari · Langileak · Ez zuzen · Abere belarjalea · Neskatxa · Ospea · Holmioa · Ez on · Aienea · Neurri apaleko · 500 · Infin., akitu · Italiako telebista · Baieztatzeko · Zilarra · Röntgen · Zikinkeria · Bizki · Igarobide · Litioa · Zintzoa · Niri · Euskal atzizkia · Infusio mota · Oxigenoa · Kanpo · Uranioa · Akatsa duena · Zeharo liberatsa · Bokala

# Bila-bila 7







# Umore giroan

Igor Oruesagasti

**HANKADUN BIHOTZA**

Joan da Jaimito eskolara eta irakasliak esan dotse ikasliei:

- Etxeko lanak: bihotz bat marraztuta ekarri biharko dostazue biharko.

Hurrengo egunian joan die danak eskolara marrazkiekin. Batek, bihotz kuadratua marraztu dau; beste batek, berriz, bihotz borobila... Eta, Jaimitok, ostera, bihotz ohiko formaduna, baina bi hankekin marraztu dau. Eta, irakasliak, harriduraz:

- Jaimito, zuk bakarrik marraztu dozu ondo bihotza, baina hankekin zelatan, noiz ikusi dozu hori?

- Ikusi-ikusi ez, baina entzun dotsat aittari amari esaten: "bihotza, zabaldu hankak".

**TXORTAN EGITEKO ARAZOAK**

Joan da Joxe medikuarengana, txortan egiterakoan arazoa zeukala-eta. Medikuak pote txiki bat emon dotsa eta hazi proba bat ekartzeko esan dotsa, gero azterketak egiteko. Itzuli da berriro be hurrengo egunian medikuarengana eta honek:

- Zelatan ba ontzixa hutsik?

- Hutsik? Atzo hasi nintzan esku batekin, bi eskurekin, gero andrea, bi eskuekin, ahoarekin..., andrean ama be ahalegindu zan, batek eskuarekin heldu, bestea ahoarekin...

- Eta ezer ez?

- Ezetz ba, ezin potea zabaldu.

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Zein udaletako aurrekontua izan zen altuena proportzioan 2000n?

Bakarren bat edo kenduta, bailarako udalek onartu dituzte dagoeneko 2001eko aurrekontuak. Baina, 2000ko aurrekontuak kontuan hartuta, asmatuko ote zenuke zein udalek onartu zuen bere bizilagunen proportzioan aurrekonturik altuena?

- Arrasatekoak
- Oñatikoak
- Leintz Gatzagakoak

**Erantzun zuzena:** Leintz Gatzaga (383.890 pta./biztanleko). Arrasatek, 167.004 pta. eta Oñatik 193.857 pta. (aurrekontu bateratuak).

## Soluzioak



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ● | A | ● | A | ● |
| | | | A | R | A | B | A |
| | | | ● | A | R | A | N |
| ● | L | ● | O | K | E | R | ● |
| N | E | S | K | A | T | O | A |
| ● | H | O | ● | T | X | A | R |
| L | A | N | T | U | A | ● | D |
| ● | R | A | I | ● | B | A | I |
| A | G | ● | K | R | A | K | A |
| ● | I | B | I | ● | L | I | ● |
| E | N | I | ● | T | E | ● | O |
| ● | A | K | A | S | T | U | N |
| O | K | I | T | U | A | ● | A |

# Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Gorde itzazu arrakastak zuretzako, orain ez da-eta nahi duzun onarpena lortzeko unea. Ez izan inuzentea.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Egindako ahaleginean bilatuko duzu segurtasuna. Eman zeure buruari atsedena eta sariren bat.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Gorde zure apaltasuna eta saiatu egiak modu zuzenean ez esaten. Burua beste nonbaiten izateagatik aukerak galtzeko arriskua.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Sendotu zure izaera, benetan nahi duzuna nahi duzulako aukeratuz. Beste guztia lortuko duzu pixkanaka-pixkanaka.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zure itxura hobetzeko une egokia, baina ez alde fisikoan bakarrik. Jarri zaitez dagokizun lekuan.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Lan arloan erabakiak hartzeak ez du esan nahi harremanak galtzea. Aurkitu zure bide berria.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Behingoagatik ez diozu inori kasurik egin behar zure erabakiak hartzeko, arrakasta horrela lortuko duzulako.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Lehengo moldeak baztertzeak ez du derrigorrez ekarri behar benetako baloreak uztea, aldatu baino ez dira egin behar, hazten utzi eta hobetu.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure ikasketetarako astia eta ahalegina beharko dituzu. Ez etsi presioen aurrean etra denborarekin emaitzak ikusiko dituzu.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Lagun berriak agertuko zaizkizu. Lagunen artean familia arteko giroa bilatuko duzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lagun berriak aukeratu beharko dituzu, baina zaharrak baztertzen badituzu ez arduratu, denbora pasatu ahala konturatuko zara ez zizutela gehiegi ematen.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Erabili bolada on hau lasaitzeko. Lehen egindako ahaleginengatik sariak jasoko dituzu.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

# Goiena Telebista

...a elektronikoa: goitb@goiena.com

## Telebegi

### Hemendik aurrera zer?

Joan den domekan, telebista-kate handiek Euskal Autonomia Erkidegoan egin ziren hauteskundeen jarraipena egiteko programa "bereziak" egin zituzten, baina uste baino lehenago bukatu ziren guztiak. Emaitzak ez ei ziren izan eurek esperotakoak, eta ezin izan zituzten egin Madrileko alderdi handien egoitzetatik prest zituzten konexioak: ez zuen merezi. Erabaki hori hartu zuten T5, Antena 3 eta TVEk, eta hiru telebista-kate horiek gordeta zituzten filmak eskaini zituzten segidan, izandako porrota ahazteko edo.

Ibarretxek hauteskundeak maiatzaren 13an egingo zirela iragarri zuenetik, egunero-egunero sekulako erreportaje eta saio bereziak jasan behar izan dituzte hiru kate horietako ikus-entzuleek. Egunero EAEri buruzko iritzia ematen zuten hainbat pertsona atera da "kaxa tontoan", eta egunero Espaniako erkidego guztietako biztanleek Euskal Herriaren gaineko kontuak euren etxeetara iristen zirela ikusi dute, euren inguruan gertatzen zenari muzin eginez: zer erremedio, beste aukerarik ez dute izan eta!

Guk, berriz, GOITB ikusteko aukera dugunok, domekan aurrez ikusitako hauteskundeei buruzko saioa ikusi genuen. M & M & M hirukoteak, hauteskunde-mahaiak itxi bezain pronto, gure bailarako datuak, hau da, debagoiendarrok hartutako erabakien berri eman zigun. Eta aurreko astean politikoei egindako elkarrizketak ere eskaini zigun GOITBk. Baina ez du bere programazioa larregi aldatu. Ez, behintzat, beste batzuek adina. Sekulako kanpaina mediatikoa izan dugu. Hemendik aurrera ikusi beharko dugu zelan betetzen duten euren programazioa.



Marijo Deogracias

## GOITB kiroletan

Zapatu eta domekan, 12:00etan

### Elgetako pilota txapelketa

Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa jokatzen ari da. Afizionatu mailako txapelketa garrantzitsuenetarikoa da eta Goiena Telebistak partidu interesgarrienak emitituko ditu. Zapatuan eta domekan, eguerdian, binakako partidu bat emango dizuegu. Ugarte-Laskurain eta Mendiluze-Egimendia bikoteak arituko dira aurrez aurre gaur, barikua. Partidu ikusgarria, duda barik, Mendiluze pilotaria txapeldunorde izan zen-eta iazko txapelketan. Esatari lanetan, Anartz Agirre kirol kazetaria eta Xabier Ubera pilotari elgetarra izango dira. Gogora ezazue txapelketako finala ekainean jokatuko dela. Goiena Telebista han izango da.

## Goibegirada

Eguaztenean, 21:05ean

### Irakasle Eskola berbagai

Aurten, 25 urte betetzen ditu Eskoriatzako Irakasle Eskolak. Hori dela eta, Goiena Telebistak mahai ingurua egingo du. Mikel Irizarren gidaritzapean, honako gonbidatu hauek izango dira mahaiaren bueltan: Nerea Alzola eta Xabier Arregi, MUNIren Humanitate Fakultateko irakasleak; Resu Abasolo, Irakasle Eskolako lehen promozioko ikaslea eta gaur egun Aretxabaletako Loramendi herri eskolako zuzendaria; eta Aitor Antxia, ikasle ohia eta Arizmendi ikastolako irakaslea. Eskoriatzako Irakasle Eskolaren iragana, oraina eta geroa izango dute berbagai gonbidatuek. Mahai ingurua 21:05ean hasiko da. Gogoratu, datorren eguazten gauean, *Berriak* saioaren ostean.

## Sarrera doan

Eguenean, 21:05ean

### Elkartasun Eguna Arrasaten

*Sarrea Doan* saioak, eguenean, tarte berezia eskainiko dio maiatzaren 26an Arrasaten ospatuko den Elkartasun Egunari. Gobernuz Kanpoko Erakundeak bilduko dira Arrasaten, eta hainbat ekitaldi izango dira egun osoan. *Sarrera Doan*ek horiek guztiak bilduko ditu. Horrez gain, arte erreportajean, Bergarako kultura etxean ikusgai dauden Pazkoetako txekorketak iragartzeko lehiaketan parte hartu duten kartelak erakutsiko dizkizuegu.Eta zelan ez, opariak ere izango dira. Eguenean, ordenagailuko Office 2000 programak eta *Euskaldunon Egunkaria*k kaleratutako munduko musiken eta musika klasikoaren bildumak oparituko ditugu. Parte hartzeko, deitu 943 71 23 93 telefonora.

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Maiatza 18-24

| EGUBAKOITZA 18 | ZAPATUA 19 | DOMEKA 20 | ASTELEHENA 21 | MARTITZENA 22 | EGUAZTENA 23 | EGUENA 24 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete**<br>21:30 **Soinuz blai** | 12:00 **Pilota: Afizionatuen banakako txapelketa lau t'erdian**<br>13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Mahaiaren bueltan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 12:00 **Pilota: Afizionatuen banakako txapelketa lau t'erdian**<br>13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Mahaiaren bueltan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Xeleberri**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goibegirada** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goibegirada**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera doan**<br>21:05 **Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### JAIAK DEBAGOIENEAN

Udaberriarekin bat, jaiak hasten dira Debagoienean. GOITB jaien gaineko saio bereziak prestatzen hasi da. Debagoieneko herritarrok telebista hurbilago ikusteko aukera izango duzue zuen herriko jaietan. Hala ere, begira geratu baino, parte hartzea gurago baduzu eta kamerak izutzen ez bazaitu, zatoz Goiena Telebistara. Zenbait saiotarako aurpegi berri bila gabiltza. Anima zaitez!

### ZOZKETA 'XELEBERRI'N

GOITBko saiorik xelebreenak hileko zozketa egingo du datorren martitzenean. Sari erakargarria, duda barik: bikote batendako, Gaztainuzketako mendi etxeetan asteburua igarotzeko aukera. Parte hartze handia izan da oraingo hilean, eta jasotako dei guztien artean egingo dugu zozketa. Hortaz, segi deitzen eta adi ibili deitu duzuen guztiok, martitzenean, hilak 22, zozketa egingo dugueta *Xeleberri* saioan.

## Kamera aurrean



*"Adimen urritasuna duten pertsonen beharrei erantzun ona ematen zaie; baina gizartearen babesa falta da"*

**Oihana Diaz de Mendibil** | ATZEGI

"BERRIAK" (2001-05-14)



*"Italiako Girora joan eta etapatxo bat irabaztea ez zen txarra izango"*

**Jon Odriozola** |

ibanesto.com taldeko txirrindularia

"BERRIAK" (2001-05-16)

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko maiatzaren 18a

## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Josemari Velez de Mendizabal/Idazlea

**Bidegileak bilduman Seber Altuberen gaineko liburuxka idatzi duzu. Zertan da bidegile Seber Altube?**

Gauza askotan, baina batez ere hizkuntzalaritzan. Euskararen aro berrian linguistikari sumatzen zaion aurrenengo ikutua Seberrek eman zion. Hainbat esparru landu zituen, musikagintzatik hasi eta filosofian bukatu zuen eta. Horregatik, jakintza esparru guztietan ezin izan zuen nabarmendu. Literaturan ere egin zuen saiakeratxo bat *Laztantxu eta Betargi* izeneko liburuxkarekin, baina Arrasaten inor gutxik irakurri du. Askok dakite Pio Barojak *El cura de Monleón* liburuan Arrasateko istorioa kontatzen duela, baina inor gutxik daki *Laztantxu eta Betargi* liburuxkan Seberrek gerra aurreko eta ondoko Arrasateko istorioa islatzen duela.

**Enpresaria ere izan zen Seber.**

Bai, enpresa bat zuzendu zuen Gernikan. Enpresa ekimenetik sosak atera ahal izan zituelako lortu zuen beste hainbat arlotan zerbait egitea.

**Dena dela, hau ez da Seber Altubez idatzi duzun lan bakarra.**

Ez. Nire liburugintzako lehen liburua Seber Altuberen biografia izan zen, 1979an argitaratua. Hala ere, pena handia izan nuen. Batetik, 1976an Jokin Zaitegirekin bere biografia prestatzen ari nintzen, eta urte berean Seber Altube plaza inauguratu zen Arrasaten. Jokin Zaitegirekin joan nintzen inaugurazіora, eta zera esan zidan Zaitegik: "Zergatik ez dugu nire biografia alde batera utzen eta Seberrena egin?". 1979an, Seberren mendeurrena zenez, biografia horri heldu nion, eta abenduaren 20an kaleratu zen. Hiru hilabete lehenago Zaitegi hil zen, eta horrek min egin zidan. Zaitegik ez zuen ikusi bere biografia, ezta Seberrena ere. Bestetik, zazpi urte ziren euskara ikasten hasi nintzela, eta Euskaltzaindiaren aurrean nire liburua aurkezteak zer pentsatu eman zidan: herri hau errenka ote zebilen, itsuen herrian begibakarra ni ote nintzen...

**Arrasatear gehiago ere izango dira bidegileak, ordea.**

Bai, baina apalagoak. Danok taldea, esate baterako. Talde horrek egin zuen Zaitegi seme kutun.

**Eta Josemari Velez de Mendizabalek zein bide egin gura du?**

Ni gaueko hamarretatik aurrera eta asteburuetan naiz idazle. Hortaz, gauza gutxi egin dezaket, astia falta dudalako. Gaur egun gizarteak beste baliabide batzuk ere baditu, eta jende berriak hartu behar du lekukoa.

**Eta orain arte idatzi dituzun hemeretzi liburuetatik zein duzu gustukoen?**

Jokin Zaitegiren biografia eta azken aurrekoa: *Bizi izan juat.*

**Amets bat?**

Hauteskundeetan gizarte honek eman duen eredua betierekotu dadila. Herri heldua garela erakutsi dugu, eta horrek iraun dezala gura nuke. Amesgaiztoak, berriz, asko, baina gauetan.



**"Euskararen aro berrian hizkuntzalaritzari sumatzen zaion aurrenengo ikutua Seberrek eman zion"**

**"Arrasaten inor gutxik daki *Laztantxu eta Betargi* liburuxkan Seberrek gerra aurreko eta ondoko Arrasateko istorioa islatzen duela"**

► *Aramaioarra / 51 urte / Idazlea*

## AIPAGARRI



**AITZIBER AZKONDO**
**Bergara / Kazetaria**

Eusko Jaurlaritzaren Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritzan lanean jardun du Gasteizen. Hedabideen beharrei erantzuteko eta hauteskundeen gaineko informazio guztia telebista, irrati eta prentsako kazetariei helerazteko antolatu den prentsa saileko kide izan da.



**MIKEL LASKURAIN**
**Bergara / Aktorea**

Hika antzerki taldeak azken lana, "Oihanaren legea" izenekoa, estreinatu zuen joan zen egubakoitzean Tolosan. Elvira Lindoren "La ley de la selva" lanean oinarrituta dago Hikaren "komedia herrikoi eta esperpentikoa". Mikel Laskurain bergararra eta Lierni Fresnedo dira antzerki lanean parte hartzen duten aktore bakarrak.


## Lanbide Heziketa

**Ingurugiroa**
- Ingurugiro kimika
- Ingurugiro osasuna

**Eraikuntza eta obra zibilak**
- Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa

**Osasungintza**
- Erizaintzako zainketa laguntzaileak
- Osasun-dokumentazioa

**Gorputz eta kirol ekintzak**
- Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea

Arizmendi ikastola
LANBIDE HEZIKETA
Arizmendi, Koop. E.
Tel: 943 77 20 25
Faxa: 943 77 00 73
arizmendi@sarenet.es
http://www.arizmendikoop.com
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

## Batxilergoak

**Natur eta osasun-zientziak**
- Osasun zientziak
- Osasun zientziak + zientzia teknika
- Zientzia teknika

**Giza eta gizarte-zientziak:**
- Gizarte zientziak
- Gizarte zientziak + giza zientziak
- Giza zientziak

**Teknologikoa:**
- Zientzi teknika

Arizmendi ikastola
BATXILERGOAK
Arizmendi, Koop. E.
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA